**EZTABAIDA: ZER IRUDITZEN ZAIZU ZIRKULAZIO LEGE BERRIA? /7**
**KIROLA: TXAKUR LEREN PROBA JOKATUKO DA DOMEKAN GORLAN /11**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko apirilaren 12a • III. urtea • 60. zenbakia

DOAN BANATZEKOA




BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




**Goienka2a**
Debagoieneko zortzi lehiakide Euskal Kantu Txapelketan

**AGUSTIN UNZURRUNZAGA**
*"Batzuendako, eskubiderik ez duten apopiloak dira etorkinak"* / 8-9

**DEBAGOIENA**
Autobideko tunelak zaintzeko etxea egongo da Bergaran /4

**HERRIZ HERRI**
MUko Mendeberri egitasmoa aztertu dute Eskoriatzan /5

DEBARROAN TRANBIA JARTZEKO PROIEKTUA AURRERA DOA

## Tranbia, eskualde osoa zeharkatzeko

Gure ibarrean egingo duten garraiobide eta komunikazio proiektu handiena ei da Debarroa zeharkatuko duen tranbiaren proiektua. Lehenengo zirriborroa urtarril inguruan eman zien ibarreko udalei Eusko Jaurlaritzak. Ordutik hona, alkateek proposamenak prestatzeko denbora izan dute, eta maiatzean beste batzar bat egingo dute, proposamenok aurkezteko. /3



OXEL EROSTARBE

## Beste zaldi bat akabatu du autoak

Hamabost gidari dira, gutxienez, antzeko egoeran istripua izan dutenak. Asko Elgetakoak bertakoak, baina baita kanpokoak ere, kasu honetan moduan. Kanpanzartik Elgetarako bidean oso ohikoa da zaldiak bide erdian egotea, eta horren ondorioz, ohikoago bihurtzen ari da istripuak izatea. Argazkian dagoen zaldia aurreko martitzenean jo zuten, 21:45ean. Gidaria ez zen zauritu, baina zaldia hiltzeaz gain, autoak matxura dezente izan zituen. Animalia hurrengo eguerdi arte egon zen bide ertzean. Zaldiak jaberik duen edo ez ez dakigu, baina identifikatzeko belarritakorik ez zuela bai.

## Beste ikasketa bi egin ahal izango dira Bergarako UNEDen

Beste ikasketa bi egin ahal izango dira Bergarako UNEDen datorren ikasturtetik aurrera. Batetik, Informatika Ingeniaritza lizentziatura, eta bestetik, Turismo diplomatura. Horrez gain, Internet bitarteko dela ikas daitezkeen ikastaroen kopurua handitu egingo du UNEDek datorren ikasturtean.

Bestalde, joan den ikasturteaz geroztik, Hizkuntzen Institutua ere abian da Bergarako UNEDen. Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko aukera eskaintzen dute, puntako teknologiaz hornitutako laborategiari esker. Berritasun horiek guztiak oraingo astean eman dituzte aditzera UNEDeko arduradunek. Aurtengo ikasturtean, 1.628 ikasle ari dira ikasten UNEDen, gehienak ere, araututako hezkuntzan. /5

DEBAGOIENA

### Autobus berriak gutxitu fisikoak dituztenendako

Urritasun fisikoak dituztenendako, autobus bi estreinatu berri ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Hain justu, Gurebus enpresak emango du zerbitzu hori, hurrengo hamabi urteotan. Zerbitzu horren kostua 27,5 milioi pezetakoa (165.258 euro) da urteko. 50 bat lagunek erabiltzen dute egunero zerbitzu hori. /4

ARRASATE

### Hainbat hobekuntza lan egingo dituzte Makatzenan

Mondragoeko Makatzenako auzotarren bizi kalitatea hobetzeko asmoa du Udalak. Horrela, aparkaleku gehiago, beste zerbitzu batzuk eta eraikin gehiago egingo ditu Udalak Makatzenan, bai eta hobekuntza nabarmenak ere. Esate baterako, umeendako parkea eta kirola egiteko eremua berritu egingo dituzte. /5


Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE
1977-2002 URTEBETETZEA 25
Zerekin egiten duzu amets?
SEAT Audi



HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21



**Podologia klinika berria ARRASATEN.**

Erdiko kale 54,
Kordoi etxean.

Informa zaitez
943 79 97 46
telefono
zenbakian

ERDIKO
KLINIKA PODOLOGIKOA

Erdiko kale, 54 behea eskubi
**ARRASATE**
erdikoklinikapodologikoa@hotmail.com
**943 79 97 46**

**Dario Foren**

# Muerte accidental de un anarquista

LA TENTACION
PRODUCCIONES

**ARRASATEKO AMAIA UDAL ANTZOKIA**

**APIRILAK 14, IGANDEA**

**ORDUA: 19:30ean**

**SARRERA: 7€**
**Gazte Txartelarekin 6 €**

ARRASATEKO UDALA
Kultura Saila

# Gure tranbia

## *Deba ibarreko tranbiaren zirriborroa aztertzen ari dira udalak, eta maiatzean egingo dute Jaurlaritzarekin bilera*

LEIRE KORTABARRIA

Gure ibarrean egingo den garraiobide eta komunikazio proiekturik handiena; horra hor, zelan definitu duten Debagoieneko alkateek Eusko Jaurlaritzak proposatu duen tranbiaren proiektua.

Egitasmoaren lehenengo zirriborroa urtarril inguruan eman zien ibarreko udalei Eusko Jaurlaritzak. Ordutik hona, ez da aldaketarik egon; alkateek euren proposamenak prestatzeko denbora eduki dute, eta maiatzean egingo den beste bilera batean aurkeztuko dituzte.

**TRANBIA AURRERA**

Tranbia aurrera doa, hortaz. Debagoieneko herri guztiak elkarrekin lotzeaz gain, Debabarrenarekin ere komunikatuko du gure ibarra. Leintz-Gatzagatik Mutrikuraino, Deba ibar osoa zeharkatu eta elkarrekin lotuko duen bizkarrezurra izango da.

Eusko Jaurlaritzak Deba arroa aukeratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindari izango den proiektu honetarako; izan ere, Euskadi osoan, pisu ekonomiko handienetarikoa duen eskualdea izan arren, garraio publiko aldetik hutsune larriak ditu Deba ibarrak, eta batik bat, Debagoienak. Bidaia gehien Arrasaten egiten dira; guztira, 9.700 bat egiten dira egunero. Horietatik, 1.300 besterik ez dira garraio publiko bidez egiten. Eta, ibarreko alkateek azpimarratzen duten moduan, gurean dabilen auto kopuru handiak trafiko eta leku arazoak sortzen ditu.

Kontuak kontu, zirriborroa ikertzen dabil orain Debagoieneko mankomunitatea, eta, emendakinak egin daitezkeen arren, tranbia aurrera doala argi dago.

### Tranbiaren egitasmoa Debagoienean eta Debabarrenean

**LEHENENGO LANAK**
Jaurlaritzak proposatzen du lanak Aretxabaletan hastea. Handik, Arrasatetik igaro eta, San Prudentzioko bidegurutzean, Bergarara joko dute. Izan ere, Aretxabaletatik Bergararaino izango dira, aurreikuspenen arabera, bidaiari gehien.

**TRANBIA-AUTOBUSA**
Oñati, Eskoriatza, Gatzaga, Antzuola, Aramaio eta Elgeta autobusez lotuko dituzte tranbiaren ibilbidearekin, baina hori aldi baterako irtenbidea besterik ez da izango, harik eta sare osoa bukatuta egon arte. Autobus txartelek tranbiarendako ere balioko dute. Autobusak 20 minuturo irtengo dira.

**DEBAGOIENETIK KANPO**
Debagoienari emango diote lehentasuna. Bergaratik, Plazentziara eta Maltzagara joko du tranbiak; handik, Debara eta, azkenik, Mutrikura.

**TRANBIA-TRENA**
Debagoienetik Debabarrenerako bide osoa egin ostean, Maltzagan, tranbiak Bilbo eta Donostia arteko trenarekin lotura samurtuko luke.

**DATAK**
Ez dago lanak noiz hasiko diren jakiterik, proiektuaren zirriborroaren gaineko eztabaida fasean daude Jaurlaritza eta udalak. Udalek lanak "lehenbailehen" hastea gurako lukete.

**PROPOSAMENAK**
Proposatutako ibilbideari aldaketa txiki bat egitearen alde dago Arrasateko Udala. Bestalde, hasieratik ibilbidearen barru egotea gurako lukete Eskoriatzako, Oñatiko, Antzuolako… udalek.




| Zatia | Luzera | Geltokiak | Denbora |
|---|---|---|---|
| Bergara | 2.845 m. | 6 | 10,5 min. |
| Bergara-Arrasate | 6.849 m. | 1 | 6,2 min. |
| Arrasate | 3.006 m. | 5 | 10,7 min. |
| Arrasate-Aretxabaleta | 1.861 m. | 1 | 1,9 min. |
| Aretxabaleta | 1.328 m. | 3 | 5,0 min. |
| GUZTIRA | 15.889 m. | 16 | 35,3 min. |

| Ezaugarri teknikoak | |
|---|---|
| Luzera | 18,6 m |
| Zabalera | 2,3 m |
| Jarlekuak | 30-40 |
| Bidaiariak | 131-134 |
| Pisua | 16,7 tona |

| Kopuruak | |
|---|---|
| Eraikuntza | 76,929 m.€ |
| Materiala | 21,636 m. € |
| Bidaiariak | 3,6-5,4 milioi |

GOIO ARANA

## Alkateen ahobatezko baietza

Debagoieneko alkateek baiezko borobila eman diote Eusko Jaurlaritzak proposatutako tranbiaren proiektuari. Egia da oraindik aurreproiektu fasean dagoela egitasmoa, eta zirriborro horri aldaketak egin dakizkiokeela; baina proiektua bera aurrera doa, eta hori da, udalen ustez, garrantzitsuena.

Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin azken bilera martxo inguruan eduki zuten alkateek, eta ordutik hona, udal bakoitzak bere hausnarketak egin eta, beharrezko izanez gero, prestatu beharreko emendakinak prestatzeko epea zabaldu da. Hurrengo bilera maiatzerako dago aurreikusita.

GOIENKARIAri komentatu diotenaren arabera, ostera, zenbait alkatek badituzte zirriborro horren gaineko proposamen batzuk. Arrasateko udalak, adibidez, San Prudentziotik Epelerako zatiarendako alternatiba proposatuko du, ibilbide hori ez zaiolako guztiz egokia iruditzen. Bestalde, Eskoriatzako Udalak adierazi du Aretxabaletatik baino, tranbia hasieratik Eskoriatzatik abiatzea gustatuko litzaiokeela, hori gerorako utzi barik.

Edozelan ere, alkateek oso iritzi ona azaldu dute. Hona hemen euren iritzi batzuk: "gure ibarra baztertuta egon da beti, eta hau konponbidea izan daiteke"; "auto larregi dabil gurean, eta horrelako zerbaiten premia dugu".

### MUGIKORTASUNA
### Debagoieneko bidaiariaren profil zehatza

Debagoieneko bidaiariaren profila egiteko, Arrasate aukeratu dute. Arrasateko bidaia gehienak herrian bertan egiten dira (%77), eta gehienak motorizatu gabekoak dira (%70). Bestalde, motorizatuen artean, %93 autoz egindako bidaiak dira. Kontuan hartu behar da Arrasatek herri autobusa duela.

### EZAUGARRIAK
### Zelakoa izango da tranbia zerbitzu berria?

Hainbat baldintza bete beharko ditu tranbia zerbitzuak. Besteak beste, oso sarri egin beharko du ibilbide osoa, eta erabilgarria izan beharko du. Norabide bikoitzekoa izango da, eta ibilbide independientea edukiko du. Ingurumenari eragin oso txikia egingo dio, eta elektraindarrez funtzionatuko du.

### INGURUMENA
### Egitasmo berriak izango dituen eraginak

Tranbiak ez du kutsadurarik sortuko, elektraindarrez ibiliko delako, eta ibilbideari dagokionez, Vasco-Navarro tren zaharraren ibilbidea aprobetxatuko da, zati handi batean, behintzat. Gainera, autoz egindako bidaiak murriztu egingo direnez, horiek sortutako kutsadura ere txikiagoa izango da.

### AURREIKUSPENAK
### Zein motatako bidaiak izango dira ugarienak?

Gaur egun, bidaia gehienak herri barruan edo inguruko herrietara egiten dira, eta, txostenen arabera, tranbia jarri ostean ere distantzia laburreko bidaiak izango dira nagusi. Arrasaten edo Bergaran, adibidez, 3.000 bat bidaiari aurreikusten dituzte; berriz, batetik bestera, 750 bidaiari izango lirateke.

### LEHENENGO ZATIA
### Aretxabaletatik Bergararainoko tartea

Lanak Aretxabaletan hastea eta hortik jarraitzea proposatzen du Jaurlaritzak. Bi herri horien arteko ibilbideak 15,8 kilometro hartuko lituzke, 35 minututan egitekoak, eta 16 geltokirekin. Herri barruan, 30 kilometro orduko gehieneko abiada hartuko du; herri artean, berriz, 80ra igo daiteke.

### BIDERAGARRITASUNA
### Bideragarria izango ote da tranbia zerbitzua?

Jaurlaritzak onartzen du, hasieran behintzat, erabilpena "bideragarritasun mailaren azpitik" gera daitekeela, baina udal politika egokiak indarrean jarriz gero, eskaera hori igo egin daitekeela. Aurreikuspenak dira bideragarria izango dela Debagoieneko bidaiarien %20k tranbia erabiltzen badu.




ARTXIBOA

UNEDek iazko urrian egin zuen 2001-2002 ikasturte hasierako ekitaldia Bergarako udaletxean.

# Beste ikasketa bi eskainiko ditu UNEDek datorren ikasturtean

*Informatika Ingeniaritza lizentziatura eta Turismo diplomatura*

ENEKO AZKARATE

Hainbat berritasun egongo dira datorren ikasturtetik aurrera Bergarako urrutiko hezkuntzarako unibertsitatean. Asmo horiek guztiak oraingo astean eman dituzte aditzera Bergarako UNEDeko arduradunek.

Hain justu, beste ikasketa bi egin ahal izango dira Bergarako Unibertsitatean. Batetik, Informatika Ingeniaritza lizentziatura, eta bestetik, Turismo diplomatura. Horrez gainera, Internet bitarteko dela ikas daitezkeen ikastaroen kopurua handitu egingo du UNEDek datorren ikasturtean. Horrela, honako titulazio hauek egin ahal izango dira, tutoretza telematikoak eta ikastaro birtualak bitarteko direla: Sistemen Informatika, Kudeaketarako Informatika, Ekonomia, Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza, Psikopedagogia, Pedagogia, Gizarte Heziketa, Filologia Hispanikoa, Ingeles Filologia, Historia, Zuzenbidea, Industria Ingeniaritza, Informatika Ingeniaritza eta Turismoa. Bestalde, joan den ikasturtea ezkero, Hizkuntzen Institutua ere abian da Bergarako UNEDen. Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko aukera eskaintzen dute, puntako teknologiaz hornitutako laborategiari esker.

Horrekin batera, datorren ikasturterako asmoez gainera, aurtengoa zelan doan ere azaldu dute UNEDeko arduradunek oraingo astean. Denetara, 1.628 ikaslek dihardute ikasten, gehienak ere, arautDutako hezkuntzan.

# Amaiera jakinik gabeko greba hasiko dute Oñatiko zaharren egoitzako langileek

*Bi egunez egin dute greba oraingo astean, hitzarmenaren alde*

E.A.

Oñatiko San Martin egoitza publikoko langileak amaiera jakinik gabeko greba hasiko dute datorren astelehenean. Martxoan, ordubeteko lanuzteak egin zituzten astebetez eta oraingo astean ere, bi egunean, martitzenean eta eguenean, greba egin dute.

Euskadiko Foru eta Toki Administrazioko hitzarmen kolektiboa aintzat hartu eta sinatzea eskatzen dute San Martin egoitzako 14 langileek. Greba egitearekin batera, Oñatiko udaletxearen aurrean elkartu dira oraingo astean langileak, euren egoeraren eta eskaeren berri emateko herritarrei.

Langileen ordezkariak eta San Martin egoitzako zuzendaritza batzordeko kideak hainbat batzar egin dituzte azkenaldian, egoera konpontze aldera, baina ez dute akordiorik egin: "Oñatiko alkatea buru duen Zuzendaritza batzordeak ez badu bere jarrera itxi eta elkarrizketaren aldekoa aldatzen", mugarik gabeko greba egiteko gertu agertu dira egoitzako langileak.

Bestalde, sor daitezkeen eragozpenengatik barkamenak eskatu diete langileek San Martineko egoiliarrei eta haien senideei. Dena dela, Zuzendaritza batzordea egin dute erantzule.

## BAILARAN LABUR

### Bergarako Ondartza baserritik zainduko dituzte Eibar-Gasteiz autobideko tunelak

Gipuzkoako Diputazioak milioi bat euro bideratuko ditu Bergarako baserria birgaitzera eta eraberritzera. Hain justu ere, leku horretan kokatuko dira Eibar-Gasteiz autobideko tunelen zaintzarako etxea, baita autobideko obren gaineko informazio-gunea eta erakusketa aretoa. Horrez gainera, autobideko segurtasun eta mantentze-lanetarako materiala gordetzeko biltegia, batzarren gela eta artxiboa ere izango ditu. Denetara, 1.000 metro koadro erabilgarri izango ditu baserriak. Ondartza baserria Eibar-Gasteiz autobideko lotuneetako baten alboan dago. Bota beharrean, baina, eraberritzea eta beste erabilera bat ematea erabaki du Foru Aldundiak. Eusko Jaurlaritzak interes arkeologikoko gune izendatuta dauka Ondartza baserria. /MONIKA BELASTEGI

### Xabier Oregi presoaren aldeko ekitaldiak, espetxean 15 urte bete dituela eta

Hamabost urte egin ditu espetxean Xabier Oregi *Panti* preso bergararrak. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte hurrengo egunotarako: gaur, egubakoitza, kale bilkura egingo dute San Martin plazan, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean; gero, autobusa irtengo da Murtziako espetxera, eta han, kartzela aurrean, beste kale bilkura bat egingo dute. Datorren egubakoitzean, ostera, omenaldia egingo diote San Martin plazan, 20:00etan. Gauean, berriz, 22:30ean, Benito Lertxundiren emanaldia iragarri dute pilotalekuan. Eta domekan, mendi ibilaldia eta bazkaria Gorlan. /E.A.



### Gutxituendako autobus berriak

Argazkian dituzuen horiek dira Debagoieneko Mankomunitateak urritasun fisikoak dituztenendako estreinatu berri dituen autobusak. Debagoienean zehar garraiatzeko zerbitzu publikoa eskainiko du Mankomunitateak autobus horien bitartez. Horretarako, Gurebus enpresaren zerbitzua kontratatu du datozen hamabi urteotarako. Zerbitzu horren kostua 165.258 eurokoa da urteko. Autobus bakoitzak txoferra eta laguntzailea dauzka eta hiru tokitara eroaten ditu, egunero, erabiltzaileak (50 lagun) euren etxeetan hartuta: Bergarako Aspacera, Aita Mennira eta Mondragoeko Gureak tailerrera, hain zuzen. /E.A.


TORREVIEJA
"Zure erretiroa pasatzeko leku paregabea. Eguzkia nagusi urte osoan"
Obra berriak
• Apartamentuak
• Bungalowak partzelarekin
• Txaletak
Bigarren eskuko aukera zabala
IZARRAITZ INMOBILIARIA
HIPER EROSKI ZENTROA
Tel./Faxa : 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com
ARRASATE
Zapatuetan egun osoa zabalik

Arigara S.L.
Iturgintza
ag
• Iturgintza
• Berogintza
• Gasa
• Bainu altzariak
• Hormigoi zulaketa
Olarte 11 behea • ARRASATE
Tel : 670 89 35 57 • Faxa : 943 79 24 25

ARAMAIO

## Limitadoa deritzon lur eremua erdibitu egin dute, behin-behinerako

Aramaioko eta Otxandioko udalek Limitadoa erdibitzea erabaki dute. Behin-behinerako hartutako erabakia da, azkenaldian zergekin sortutako arazoa konpontzeko. Horren arabera, Limitadoak dituen 565 hektareako lurraldearen %50,12 Otxandioko Udalarena izango da, eta %49,88, Aramaiokoarena. Herritarrek banaketa horren arabera ordaindu beharko dituzte Ondasun Higiezinen gaineko zergak. Eta hala, banaketa horren arabera hartuko dituzte udal biek lurraldearen gaineko zenbait erabaki. /UBANE MADERA



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

## Galesko Asanblada Nazionaleko Kultura, Kirol eta Hizkuntza ministroa eta hango beste bost ordezkari Udaleko Euskara Planak ezagutzera etorri dira Bergarara

Atzo, eguena, Jenny Randerson, Galesko Kultura, Kirol eta Hizkuntza ministroa Bergarako Udalean izan zen. Randerson Galesko Asanblada Nazionaleko beste bost kiderekin etorri zen, eta helburua Udalak euskararen normalizaziorako garatu dituen planen berri jasotzea izan da. Horren guztiaren berri, Koldo Pereira Euskara batzordeburuaren eta Estepan Plazaola Euskara teknikariarekin izandako batzarrean jaso zuten.

Galestarrak bi egunerako etorri dira Euskal Herrira, Eusko Jaurlaritzak gonbidatuta. Bidaiaren xedea Jaurlaritzaren hizkuntza politikarako hainbat planen berri jasotzea izan da. Udala herritarrengandik hurrago dagoen administrazioa izanik, bertatik bertara ikusi nahi izan dituzte plan horiek Bergaran. /M.B.

ARETXABALETA

## Loramendi euskara elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu udaberrirako

Neguan eta udazkenean egin zuen moduan, Loramendi euskara elkarteak udaberrirako ere kultura egitaraua gertatu du.

Aurtengo udaberrian, maiatzean, hain zuzen ere, ekitaldi nagusi bi egongo dira: bata, Otalazelai Eguna, eta bestea, Euskararen Eguna. Baina jaialdi horiez gainera, Loramendik beste hainbat ekitaldi antolatu ditu ondorengo hilabeteotarako. Hala, besteak beste, hainbat hitzaldi, txalaparta ikastaroa, antzerkia, eta diaporama emanaldiak egingo dituzte. /AMAGOIA LASAGABASTER

ANTZUOLA

## Otsailean herrian egin zituzten pintadak Udalak garbituko ditu

Horixe erabaki zuen udalbatzarrak martxoaren 26an egin zuen ezohiko osoko bilkuran.

Juan Benítez PSE-EEko zinegotzia izan zen Udalak pintadak garbitzea bere gain hartzeko proposamenaren aurka bozkatu zuen bakarra.

Horrez gainera, beste bi puntu ere onartu zituen udalbatzarrak: batetik, pintaden atzean, egoera politiko zehatz bat dagoela adierazten zuen puntua; eta bestetik, pintadak ez dituztela onartzen eta justifikatzen adierazten zuen puntua. /AINTZANE IRIZAR

ESKORIATZA

## Mendeberri izeneko hezkuntza proiektu berritzailea gaur aztertu da HUHEZIn

Gaur, apirilak 12, Mendeberri hezkuntza proiektua aztertu dute Hezkuntza eta Zientzien Fakultatean. Jardunaldietara Madrilgo La Salle Irakasle Eskolako Elvira Juárez irakaslea etorri da eta arazoetan oinarritutako metodologiaren berri eman du hark. Monterreyko Goi Ikasketen Institutuak sortutako materiala ere aztertu dute.

MU orain urte eta erdi hasi zen lantzen Mendeberri proiektua, eta datorren ikasturtean Irakasle Eskolako Haur Hezkuntza espezialitatean jarriko du abian froga gisa. /MIRARI ALTUBE

ARRASATE

# Makatzena auzoan bizi kalitatea hobetzeko lanak egingo ditu Udalak

Makatzenako auzotarren bizi kalitatea hobetzeko asmoa du Udalak. Horretarako, auzoaren oraingo egoeraren diagnostikoa egin dute Asmatu eta Eraiki enpresek, Udalak eskatuta. Eta diagnostiko horren emaitzen arabera zehaztuko dute auzoa eraberritzeko egin beharreko lanak eta aurreproiektua.

Adibidez, txostenak dio aparkaleku gehiago behar direla. Izan ere, aldapa handia du Makatzenak, eta ondorioz, auzotarrek autoa asko erabiltzen dute eta auto ugari gaizki aparkatuta egoten dira auzoan.

Lokal huts asko daudela ere jakinarazi du txostenak, baina era berean, lokal horiek ez dituztela erabiltzen. Hori dela eta, lokaletan liburutegiren bat, zaharrendako egoitzaren bat, batzar gelak edo antzerako lekuak sortzea proposatzen du.

Bestalde, autoendako bideak konpontzeko beharra dagoela dio txostenak, baita oinezkoendako guneak egokitzeko ere. Horren harira, berdeguneak konpontzea eta auzoaren ibilerraztasuna bideratzea proposatu dute.

#### AISIALDIRAKO GUNEAK

Umeendako parkea eta kirola egiteko eremua ere kontuan hartu ditu diagnostikoak. Hain zuzen, material gehiago erostea eta oraingo kirolgunearen zoruaren ordez bigunagoa jartzea proposatu du.

Eta horrekin batera, auzoaren ur eta argindar sarea, telefono hariak eta bestelakoak konpondu beharko direla dio. /U.M.

**Zertzelada**

**Aparkaleku gehiago, beste zerbitzu batzuk eta eraikin gehiago egingo ditu Udalak Makatzenan, bai eta hobekuntza nabarmenak ere.**

OÑATI

# Oñati Interneten, Turismo eta Garapen Agentziaren ekimenez

Estreinatu berri duten webgunea honako helbide honetan topa dezakegu: *www.oinati.org*. Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak jarri du abian ekimen hori, Danka Multimedia enpresa espezializatuarekin lankidetzan.

Horrela, webgune horretan Oñatiren gaineko informazio zabala topa dezakegu: ostatuen gainekoa, monumentu eta ondare kulturalaren gainekoa edo Arrikrutzeko proiektuaren gainekoa, besteak beste. Oñatiko argazkiak ere eskuragarri daude, bai gaur egungoak baita antzinakoak ere. Webgune dinamikoa izan gura du, turisten interesekoa eta eguneratua. /AINTZANE IRIZAR




GOIENKARIA

**Informazio zabala eskaintzen digu *www.oinati.org* webguneak.**

ELGETA

## GOITBko seinalea herriko etxe guztietan hartuko da gaurtik aurrera

Kostata, baina azkenean GOITB ikus dezakegu Elgetan. Teknikariek jarri dute dagoeneko seinale zabaltzailea Uruburun.

Ibarreko telebista 54. edo 50. kanalean ikusiko da. Azken frogak egin eta gaur erabakiko dute kanal egokia zein den.

GOITB etxean ikusteko, ordea, gehigarri bat jarri behar zaio norberaren antenari. Gehigarri horren kostua 30-40 euro artekoa da eta etxeko antenaz arduratzen den edozein teknikari ardura daiteke horretaz. /OXEL EROSTARBE

LEINTZ GATZAGA

## Gatzagako hiru emakume Saharako kanpamentuetan egon dira

Oporrak Saharako 27 de Febrero kanpamentuan eman dituzte Amaia Olabe, Edurne Elkorobarrutia eta Mariatxen Arantzabalek.

Gatzagarrak, Arrasateko eta Debako emakume banarekin batera, beste guztiak baino egun bat lehenago heldu ziren kanpamentura. Hurretik bizi izan zuten Saharako herriak bizi duen egoera, eta azaldu digutenez, ahazteko gaitza izango da han bizi izan duten esperientzia: "Hunkigarria eta, era berean, gogorra izan da", esan digu Olabek. /A.G.

# Zabalik



JUAN LUIS
AZKARATE

## *CyberChic*

**IRC-Hispano txat sarea, Hotmail korreo elektronikoko zerbitzaria, Altavista eta beste batzuk hasi dira dagoeneko hainbat zerbitzu kobratzen. Google bilatzaile famatua laster hasiko omen dela esaten da. Informazioaren Gizartearen inguruan profezia asko egiten ari da, baina Interneteko sasoi hippya, zeinean dena debaldekoa zen, amaitzera doa eta hau errealitate hutsa da. Hasierako ilusio faltsu hark ehunka .com enpresaren kiebrak eta Burtsan galera izugarriak eragin zituen, besteak beste.**

**Testuinguru horretan, etxe honetako arduradunek *e-debagoiena* egitasmoa aurkeztu berri dute. Gauzak pixka bat argiago egotea (oraindik inork gutxik daki nondik jo behar den, baina bai nondik jo behar ez den) lagungarri izango da, zalantza barik.**

**Debagoieneko ekimena, dena dela, ez da gauza makala izango. 560 miloi euro inbertitu edo inbertituko dituzte Eusko Jaurlaritzak, MCCk, Euskaltelek eta beste erakunde batzuek. Ez dut ondo ikusten zein den egitasmoaren filosofia, bertan gauza gehiegi nahasten baitira. Hala ere, nire ustez, enpresek igarriko dute gehiago *e-debagoiena* proiektuaren inplantazioa, kaleko hiritarrak baino. Esaten da, adibidez, hiritarraren eta administrazioaren arteko distantzia txikitu egingo dela tramankulu berri horiei esker, baina egitasmo horren arduradunek jarri duten etsenplu batzuk barregarriak izan dira. Mesedez, norbaiti okurrituko zaio sekula udal pleno bat Internetez jarraitzea?**

**Badakit adibide bat baino ez dela, baina gauza batzuk begi-bistakoak dira. Pentsa dezagun, bestela, zer gertatu den poltsikoko telefonoen negozioarekin. WAP teknologiak, oso CyberChic eta punta-puntakoa izanik, porrot izugarria izan du. GSM mezuen kontua askoz sinpleagoa da, baina kabroi batzuk dirutzen ari dira Bisbal, Bustamante eta sasiartista horiei guztiei esker.**

# Gutunak

## Beste ezbehar bat

Euskal Herrian gaur egun jasaten ari garen lan istripu siniestrabilitate altuari, beste ezbehar bat gehitu behar diogu, joan zen martxoaren 25eko gauean izan zen istripuaren ostean. Gure lankide Jesus Mari Arietaleanizbeaskoak bizitza galdu zuen, bere lanegunaren amaieran etxera bidean auto batek harrapatu zuenean.

Aipatu behar dugu aurreko urtean Euskal Herri osoan lan istripuetan hilak suertatu ziren 121 pertsonetatik, 39 "in itinere" hil zirela.

Kontestu zabalago batean, ezin utzi dezakegu azpimarratu gabe enpresa bakoitzean benetako barne lan prebentzio plan baten beharra, langileok osasun eta lan segurtasunerako dauzkagun eskubideak bermatuak izan daitezen. Honekin batera, gure etxeetatik lanpostura eguneroko desplazamenduak gutxieneko segurtasun baldintzetan izan daitezela.

Gure eskualdean bereziki salatu behar dugu azpiegituren egoera, zeintzuk ez dituzten baldintza minimoak ere segurtatzen.

Azkenik, idatzi honen bitartez, gure dolumina adierazi nahi diegu gure lankidearen senitartekoei.

ACERALIA LARGOS BERGARAKO
ENPRESABATZORDEA
Bergara

## Hezkuntza-lege berrien inguruan

Pasa den martxoaren 6an, azken garaian hezkuntzarako proposatu diren legeen aurrean desadostasuna adierazteko, Mondragón Eskola Politeknikoko ikasleok greba egin genuen, Ikasle Abertzaleak taldeak eginiko deiari erantzunez.

Ikasketei uko egin genien egun horretan, bozketan parte hartu zutenen %80ak hala nahi izan zuelako. Greba egiteaz gain, gure iritzia zabaldu nahi dugu ezegokiak iruditzen zaizkigun legeon aurrean, bakoitzaren ideologia eta pentsamoldearen gainetik hausnarketa bultzatuz. Izan ere, Madrilgo Gobernuak hezkuntza sistema aldatuko dituen legeak bultzatu ditu Lau legeok (Humanitateen Dekretua, Unibertsitateen Legea, Lanbide Heziketen Legea eta Kalitatearen Legea), unibertsitatera soilik ez, baita hezkuntza sistema osora ere, ekar ditzakeen onurak baino gehiago, ziur ekarriko dituen arazoak ikusten ditugu. Eskola porrota ekidin ordez, ikasleen artean diferentzia are nabarmenagoak ezarriko ditu. Alde batetik, ikasleak beren emaitzen arabera sailkatuko dira. Honekin lortzen dena ez da aberastasun kulturala batzuengana mugatzea baizik. Hezkuntza orokortua bultzatu beharko litzateke, guztion kultura, jakinduria maila, garatzen duena. Arazoak dituztenak baztertu ordez, horien garapena bilatu beharra dago.

Honekin irmo loturik daude unibertsitatera iristeko jarriko dituzten oztopoak; bai errebalidarekin, bai unibertsitatean bertan beste proba batekin. Gutxi batzuengana mugatuko da, beraz, ezagutza. Hala ere, unibertsitatera heldu aurretik, dagoen hezkuntza sistema aldatu nahi dute, onerako, diotenez. Kritikotasuna, kreatibitatea... lantzeko ikasgaiei garrantzia kenduko zaie. Ikasleak pentsatzeko beharrik ez du izango, erakutsi diotena ikastea soilik, beronen sormena landu gabe, pentsamolde bakarra bultzatuz. Irakasleriari dagokionez, gaur egun daudenek Madrildik ezarritako azterketa bat gainditu beharko dute. Gure unibertsitatean, adibidez, %25ak pasa beharko du berau, bertakoen eskumenak murriztuz. Berriz, irakasleriaren hautaketa unibertsitateen esku behar litzateke, beraiei baitagokie zer komeni zaien esatea, erabakitzea. Unibertsitateak eremu propioa behar du, eta boterean dagoenak errespetatzen jakin behar du, bakoitza izan behar baita bere etxea gobernatzen duena, bakoitzak baitaki benetan zeren beharra duen. Harturiko neurriok ez dute benetako soluziorik, konponbiderik, ekarriko, eta ez du inolako zentzurik aurrera pausorik ekarriko ez dituen berrikuntzak planteatzeak.

Eskola Politeknikoko ikasleok ez ditugu legeok onartzen, eta gizarteari jakinarazi nahi diogu. Gure heziketa eta etorkizuna jokoan daudelako. Zerbait hobea nahi dugulako.

NAROA ELORTZA
Arrasate

# Hemeroteka

## Munduko agintariak, berandu eta gaizki

Moncloako Jauregian bilera egin ondoren, Europar Batasuneko, Estatu Batuetako, Errusiako eta Nazio Batuen Erakundeko ordezkariek zera adierazi dute: Israelek berehala eten behar du palestinarren aurkako erasoaldi militarra, eta, aldi berean, Arafatek azpiegitura terrorista osoa desegin behar du.

Atzoko agiriak erakusten du munduko agintari gorenek berandu eta gaizki heldu diotela Ekialde Hurbileko suari, eta sua itzaltzeko benetako borondaterik ba ote duten azken asteotan zabaldutako zalantza areagotu dute.

Martxoaren 29an hasi zen Israelgo Armadaren azken erasoaldia. Orduz geroztik, Jericon ez ezik, Zisjordaniako hiri guztietan sartu dira israeldarrak, eta txikizioak, atxiloketak, zaurituak eta ehunka hildako izan dira erasoaldi honen behinbehineko balantzea.

Martxoaren 30ean NBEren Segurtasun Kontseiluak, 1.402. ebazpenaren bidez, Israelgo Armadari atzera egiteko eskatu zion; abenduaren 3tik Ramallahn konfinaturik dagoen Arafatekin batera dauden Europako ekintzaileek nazioarteko komunitateari behin eta berriz dei egin diote Israelgo erasoaldia bukatzeko zerbait egin dezan; herri arabiarrek palestinarrentzat laguntza eskatu dute; Bushek berak behin baino gehiagotan eskatu dio Sharoni erasoaldia eteteko.

Honen guztiaren ondoren, munduko agintari boteretsuenek bilera egin eta adierazpen soil batekin etsitzea ez da zilegi. Berandu da hitz soiletarako. Eta gaizki ari dira.

Nahikoa da azken asteotan gertatu dena aztertzea, gatazka honetan aurrez aurre dihardutén bi protagonisten egoera eta indarrak erabat desorekatuak direla ikusteko. Munduko armadarik sendoenetakoa da Israelgoa, eta ezin da Intifadarekin parekatu. Ez eta gerrian lehergailuak itsatsita bere bizitza leherrarazteko prest dauden palestinarrekin ere. Eta horixe da atzoko agiriak egin zuena.

(...)

Editoriala
GARA. 2002-04-11

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# *Eztabaida*

Urte hasieran jarri zuten indarrean Zirkulazio Lege berria. Helburua: zirkulazio istripuak gutxitzea. Modua: zigorrak gogortzea, gidabaimena kentzera arte. Arau berriaren arabera, oso arau-hauste larriak izango dira alkohol-maila gainditzea, alkoholemia kontrolak egiteari uko egitea, baimendutakoa baino askoz ere azkarrago ibiltzea edo poltsikoko telefonoa erabiltzea gidatzen goazenean. Isunak, esan bezala, gidabaimena behin betiko kentzerainokoak izan daitezke. Jende asko azaldu da lege horren aurka.

# Zer iritzi daukazu Zirkulazio Lege berria zorrotzagoa izateari buruz?

## *Beste behin zigorraren bidea aukeratu dute*



ESTEBAN MURUAMENDIARAZ
Hiru sindikatuko idazkari teknikoa

Argi geratu da, beste behin, hemen modu bateko erabakiak hartzen direla beti, hau da, zigorraren bidea aukeratzen dela. Beste konponbide bat bilatu beharrean, isunak gogortzea erabakitzen da, horrekin, zirkulazioaren eta istripuen arazoa konponduko delakoan.

Bestalde, esan behar da zenbat eta kilometro gehiago egin eta errepidean zenbat eta ordu gehiago eman, askoz ere aukera handiagoak daudela arauak hausteko. Hortaz, garraiolariok beste edozeinek baino aukera handiagoak ditugu legea hausteko. Eta, ondorioz, zigorra askoz ere gogorragoa da halabeharrez kaminoan ibiltzera derrigortuta dagoenarendako, esaterako, kamioilariondako, autoa noizean behin hartzen duenarendako baino. Kamioilari bati gidatzeko txartela kentzen bazaio, bere ogibidea kenduko zaio. Beraz, ogibidea errepidean ibiltzetik ateratzen dutenen aurkakoa da lege berria. Bestalde, isunen bitartez diru gehiago batzea da legearen helburu bakarra.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, Zirkulazio Legea ez ezik, beste araudi zorrotz batzuk ere errespetatu behar ditugula garraiolariok. Esaterako, ezin dezakegu nahi edo ahal beste ordu gidatu jarraian. Hortaz, bidaia luzeak egiten dituztenendako, errepide ondoko atsedenlekuak behar-beharrezkoak dira eta Estatu Espainolean apenas daude atsedenleku egokiak, eta daudenak pribatuak dira, hau da, autobideetakoak. Europan, aldiz, askoz ere azpiegitura egokiagoak daude, baina gero eta arriskutsuagoak dira, lapurretak direla-eta.

Bukatzeko, azken hausnarketa bat: Zirkulazio Zuzendaritza Espainiako Barne Ministerioaren organoa da; eta, autoeskolek sekulako indarra dute Zirkulazio Zuzendaritzan; eta, Espainiako autoeskola askotako jabeak oso lotura handia dute Barne Ministerioarekin; eta, gidatzeko txartela kenduz gero, berriz ere autoeskolatik pasatu beharra dago txartela eskuratzeko… Argi geratzen da, beraz, errepidean ordu gehien ematen dutenek, alegia, garraiolariok, ez daukagula ahotsik legea egiterakoan eta, azken finean, ez gaituztela aintzat hartzen erabakiak hartzerakoan.

**“Ogibidea errepidean ibiltzetik ateratzen dutenen aurkakoa, da lege berria”**

## *Oro har ondo irizten diot isunak gogortzeari*



JOKIN ITURRIOTZ
Leniz Autoeskolakoa

Zirkulazio Legeari egin zaizkion berrikuntzak onerako izan dira, nire ustez. Esaterako, poltsikoko telefonoa erabiltzea debekatzeari ondo irizten diot, modu honetan hainbat eta hainbat istripu ekidi daitezkeelako eta auto gidarien segurtasuna bermatzeko aurrerapauso handia delako. Bestalde, ondo iruditzen zait bizikletan doazenei aurreratzen lagatzea, etenik gabeko lerroa egon arren, beti ere abiada errespetatuaz, jakina.

Zigorraren bidea aukeratu da, hau da, isunak gogortu egin dira, istripuak gutxitze aldera. Baina, uste dut onartu behar dugula ohituta gaudela egurpean ikastera. Egurrik ez badigute ematen, ez dugu kasurik egiten. Hori horrela da, zoritxarrez. Nork errespetatzen ditu abiada murrizteko hainbat eta hainbat seinale? Ia inork ez. Bestela, zergatik jarri dituzte herri barru guztietan abiada txikitzeko oztopo horiek zoruan? Abiada inork errespetatzen ez duelako. Tristea da, baina horrela da. Astoak bezalakoak gara eta zigorrarekin ez bada, ez dugu kasurik egiten.

Bestalde, gero eta auto gehiago dago eta errepideak, ostera, ez dituzte horren azkar berritzen. Hori arazo larriagoa da eta arazo horri irtenbide bat emateko, garraiobide publikoak bultzatu beharko lituzkete eta baita kontzientziazio kanpainak egin, autoa gutxiago erabil dadin.

Aipatu dudan moduan, isunak gogortu egin ditu lege berriak eta arau hauste larrietan gida-baimena behin betirako kentzerainoko zigorrak ezartzen dira. Erabaki hau ona izan daiteke auto eskolakoondako, gida-baimena berriz ere ateratzeko auto eskolara joan beharko du-eta araua hausten duenak. Orain, horrelako zigorren aurrean, gidariak argiago eta txintxoago ibiliko direla uste dut. Edozelan ere, uste dut ona eta egokia izango litzatekeela hainbatero —hamar urtean behin gida-baimena berriztu behar dugunean, esaterako— birziklapen ikastaroak jasotzera behartzea. Ze hamar urtean seinale ugari aldatu egiten dira eta berrikuntza horiek ezagutzea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Jakina, halakorik ez du legeak jasotzen, tamalez. Eta beste hutsune bat ere ikusten diot legeari: hain justu, ez du zehazten bizikletan doazenek paraleloan ibiltzerik duten ala ez.

**“Onartu behar dugu ohituta gaudela egurpean ikastera, horregatik gogortu dira isunak”**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Emakumeen aurkako tratu txarrekin bukatzeko zer egin daiteke?*

# *Gora eta Behera*

### ‘E-DEBAGOIENA’ EGITASMOA

Aurki, teknologia berriak eguneroko tresna izango dira. Horregatik, oso garrantzitsua da ibar honetan sortu den e-debagoiena egitasmoa. Laster izango dugu denok etxean, ikastolan, lantokian… bertako eta kanpoko informazioa erraz aurkitzeko modua. Eta Debagoiena ere hor izango da, sarean, aurrez aurre mundu zabalari irekia.

### HEZKUNTZA LEGEAREN INPOSAKETA

Hezkuntza kalitatea hobetzeko legea inposatzeko nahia ez zait ondo iruditzen. Lege bat ezarri aurretik, beharrezkoa izango litzateke herrialde guztietan hezkuntzan ari garenon iritziak eta iradokizunak kontuan izatea. Prest ote daude Madrilen ikasle, irakasle eta gurasoen egarriak eta nahiak entzuteko?



ANDONI ZENDOIA
Txantxiku Ikastolako zuzendaria

# *Koplak*

## *Umorea*

Solasgaitzat hartu nahiko nuke
gaurko hontan umorea,
zorionez denok dugulako
gure barnean gordea.

Haserreak ta gatazkak daude
pertsonen artean nonahi,
izan daiteke ez dutelako
batzuek barre egin nahi.

Barrea ez da gauza okerra
barrea ez da kritika,
baina egin beharko genuke
norberagandik hasita.

Gehienok egon gara sarritan
ume txikiei begira,
egun osoan barrez dabiltza
eta pozik bizi dira.

Pozik bizitzeak ez digunez
inori egiten kalte,
egunero saiatuz gero
hobe biziko ginake.

Momentu on eta txar ugari
bizitzaren oinarrian,
negarra oso ona da baina
ahal dela behintzat neurrian.

JOKIN LABAIEN

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Agustin Unzurrunzaga*
GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIAKO BOZERAMAILEA

# “Etorkinen Legeak lehentasun nazionala eta jaioterria hartzen ditu kontuan eskubideak aitortzeko orduan, eta hori ikuspuntu faxista iruditzen zaigu”



Orain dela hamar urte sortu zuten SOS Arrazakeria, batik bat, etorkinei laguntza emateko. Espainiako hainbat lekutan eta Hego Euskal Herriko lau probintzietan ditu ordezkaritzak erakunde horrek. Agustin Unzurrunzaga (Bergara, 1947) da Gipuzkoako SOS Arrazakeriako bozeramailea. Etorkinen arazoez jardun dugu Agustinekin.

ENEKO AZKARATE

**Urteak daramatzazu etorkinei laguntza eta babesa eskaintzen. Beharbada, zu zeu ere etorkin izan zinelako?**

Etorkin baino gehiago, iheslari. 1968an alde egin nuen, Manzanas hil zutenean, Iparraldera lehenengo eta Parisera geroago. Renault etxean ibili nintzen lanean eta, jakina, garai hartan, munduko leku askotatik Frantziara lanera joandakoak izan nituen lankide. 1976an itzuli ginen Donostiara.

**Orain dela urtebete pasatxo jarri zen indarrean Etorkinen Lege berria. Kritika asko egin dizkiote legeari. Zergatik zaudete lege horren aurka?**

Lege hori 2000ko legearen erreforma txarra da. 2000ko hura eztabaida luzearen ostean onartu zuten. Bazirudien parlamentuko talde guztien adostasunaz onartuko zutela, baina azkenean, PPk eta CIUk aurka bozkatu zuten. Lege horrekin aurrerapauso batzuk eman ziren: etorkinen eskubide batzuk onartzen zituzten, lanpostu publikoetarako, esaterako, atea ireki zieten; bisatuei dagokienez, ezezkoa jasotzerakoan errekurtsoa jartzeko aukera zegoen, nahiz eta, praktikan, oso gutxitan gertatu; gero, irregulartasunetik egoera erregularrera pasatzeko epea laburtu egiten zuen legeak… Bueno, bada, iaz onartutako legeak pikutara botatzen ditu aurrerapauso horiek guztiak. Egoera erregularrera igarotzeko bost urteko epea ezartzen da eta horrek egoera klandestinoak bultzatzen ditu: bisatuak ukatzerako orduan, errekurtsoaren aukera ezabatu egiten da; egoera irregularrean dauden etorkinei ez dizkiete oinarrizko eskubideak onartzen; hezkuntzan ere atzerapausoak egiten dira… Bestalde, gogortu egiten da kanporatzeko sistema. Esaterako, etorkinak berehala euren herrira kanporatzeko erraztasunak izaten dira. Laburbilduz, esan daiteke fenomeno migratzaileak polizia ikuspuntutik hartu izan direla beti. Ekorkinei oztopoak jartzen dizkiete sartzeko eta bertan geratzeko, eta erraztasunak, berriz, kanporatzeko. Etorkinen Legeak lehentasun nazionala eta jaioterria hartzen ditu kontuan eskubideak aitortzeko orduan. Horixe da lege horren oinarria, eta gure ustez, oinarri faxista da.

**Mugak zabaldu eta nahi duen edozeini aukerak ematearen aldekoak zarete?**

Gai hori ezin daiteke modu abstraktuan planteatu. Argi dago estatu aurreratuek ez dutela horren aldeko jarrera. Gure perspektiba, hortaz, estatuen jarrera gogor horren aurka egitea da. Giza eskubideen aldarrikapenak onartzen du pertsona guztiek dutela eskubidea jaioterritik irteteko, baina ez du hurrengo urrats logikoa ematen, hau da, irteteko eskubidea baldin badu, nonbaiten sartzeko eskubidea ere izan beharko du, kontuan izanda munduko gelen jabeak estatuak direla eta estatuok euren geletako ateak itxi egiten dituztela. Hortaz, aldarrikapen moralen gainetik, eguneroko arazoetan murgildu beharra daukagu.

**Mugak zabaltze horrek, baina, ez lituzke arazoak sortuko?**

Munduan sei mila milioi biztanle bizi bagara, migratzaileak 200 milioira ez dira iristen. Bestalde, Espainiako Estatuaren gaur egungo egoera aztertzen badugu, ikusiko dugu etorkinak biztanleria osoaren %2 besterik ez direla; Hego Euskal Herrian ez dira horra iristen. Gipuzkoan, urtero, 1.400 bat etorkinek eskatzen dute egoitza-baimena, eta baimen hori eskatzen duten guztiek lanean dihardute. Etorkin batek lana aurkitu gura badu, lehenengo, INEMeko bulegoan ziurtatu behar du hemengo inor ez dagoela lanpostu hori betetzeko gertu. Hori ziurtatu ondoren eskatu ahal izango ditu egoitza-baimena eta lan-baimena. “Etorkinek lanpostuak lapurtu egiten dizkigute” eta horrelakoak entzuten ditugu askotan, baina hori ez da egia. Gainera, norenak dira lanpostuak? Jabea dute ala?

**Heribert Barrerak kritika ugari jaso zituen etorkinen gainean egin zituen adierazpenengatik. Zer deritzozu horri?**

Intelektual batzuek iritziak plazaratu dituzte gai horren inguruan. Giovanni Sartorik edo Herrero de Miñon-ek, esaterako, ‘‘inmigrazioaren selekzioa’’ aldarrikatzen dute; haien ustez, aldez aurretik egin behar da aukeraketa eta, batez ere, aukeraketa horren oinarria gertutasun edo urritasun kulturala izan behar da. Horrek esan nahi du, esaterako, erlijio musulmana duten pertsonak kanpoan geratzen direla, edo Afrika osoa ezin dugula aintzat hartu. Beste intelektual batzuek ere antzeko gauzak esaten dituzte. Horien ustez, etorkinak apopiloak dira, ez dira eskubideak dituzten pertsonak. Gu gara ostatu honen jabeak eta besteek, guregana etorri direnez, ez dute eskubiderik, guk onartzen dizkiegun eskubideak izan ezik. Intelektual horien teoria guztiek jantzi egin dituzte lehen egiten ziren diskriminazioaren aldeko adierazpen edo teoria sinplistak.

**Kuriosoa da horrelakoak entzutea, euskal nazionalismoari, Espainiako etorkinekin izan duen jarreragatik-eta, egin zaizkion kritikak entzun eta gero.**

Bai, ezta? Etorkinek Espainiako kultura eta hizkuntza onartu behar dituztela eta ez alderantziz… horrelakoak entzun diz-

LANPOSTUAK

**“Askotan entzuten ditugu ‘Etorkinek lanpostuak lapurtu egiten dizkigute’ eta horrelakoak, baina hori ez da egia. Gainera, norenak dira lanpostuak? Jabea dute ala?”**

ESKUBIDERIK EZ

**“Batzuen ustez, etorkinak apopiloak dira, ez dira eskubideak dituzten pertsonak. Gu gara ostatu honen jabeak eta besteek, guregana etorri direnez, ez dute eskubiderik”**

MIKEL AZURMENDI

**“Mikel Azurmendi El Ejidora joan, eta hiru hilabetean ia doktorego-tesia egin du, azken baten, PPren jarrera zuritzeko. Eta Inmigrazio Foroko presidente izendatu dute”**

ETORKINEKIKO JARRERA

**“Etorkin latinoamerikar gehienek esaten dute garai baten euren arbasoek etorkinekin izan zuten jarrera askoz hobea izan zela guk eurekin duguna baino”**



ANDER GILLENEA

kiegu Espainiako hainbat intelektual, tertuliakide edo politikori. Hor daude Mikel Azurmendiren adierazpenak, El Ejidoren gainean eta multikulturalismoaren gainean esan dituen astakeriak. Multikulturalismoaren karikatura egin du Azurmendik. Multikulturalismoaren eredua Hego Afrikako *apartheid*-a dela esatea beldurra emateko moduko erredukzionismoa egitea da.

**Zelan uler daiteke halako adierazpenak egiten dituen pertsona bat Inmigrazioaren Foroko arduradun izatea?**

Ez da kasualitatea Euskal Herritik alde egin eta oso denbora gutxira, El Ejidora joatea ikerketa famatu hori egitera. Almeriako Unibertsitateko Antropologia saileko ikerlariek urteak daramatzate El Ejidoko eta inguruko egoera aztertzen. Mikel Azurmendi, ostera, El Ejidora joan da eta hiru hilabetean ia doktorego-tesia egin du, azken baten, PPko gobernuaren jarrera zuritzeko. Eta liburua argitaratu eta gutxira, Inmigrazio Foroko presidente izendatu dute.

**Euskaldunak arrazistak gara?**

Ez naiz pertsonak multzotan banatzearen aldekoa. Inoiz ez nuke esango alemanak naziak izan zirela. Batzuk baziren, baina beste batzuk, ordea, ez. Euskal Herrian era askotako pertsonak bizi gara. Batzuek jarrera arrazistak dituzte, beste batzuek ideia arrazistak erabiltzen dituzte, baina beste asko ez dira ez arrazista ez xenofobo. Indiferente den jendea ere badago; baita oso solidario den jendea ere. Akaso, horixe da gaur egun Euskal Herriko gizartearen ezaugarrietako bat, alegia, badagoela elkartasuna aldarrikatzen duen eta praktikatzen duen jende dezente.

**Mugimendu migratzaileak, behintzat, bizi izan ditugu euskaldunok. Batetik, etorkin izan garelako, eta bestetik, urtetan Espainiatik jende asko etorri delako hona.**

1860an, Urruñan, Antoine Abbadiek antolatu zituen lehenengo lore-jokoetan Etxahunek bota zituen bertsoak ikustea besterik ez dago. *Montibediora joaliak* izan zen lehenengo gaia. Ez zen kasualitatea izan, orduan, gizartean, hori oso gai garrantzitsua zen-eta. Euskaldun etorkinen hiru ogibide aipatzen zituen Etxahunek: esklabo, soldadu eta hirugarrena, esan barik, prostituta.

**Amerikarrak hemendik hara joandako euskaldunekin eskuzabal izan zirela uste duzu?**

Egoera ezberdina zen, baina latinoamerikar gehienek esaten dute garai baten euren arbasoek etorkinekin izan zuten jarrera askoz ere hobea izan zela guk eurekin duguna baino.

**Hedabideetatik jasotzen ditugun albiste askotan, delinkuentzia kasu gehienak etorkinekin lotzen dituzte. Zer deritzozu horri?**

Hortxe gauza bi nahasten dira. Batetik, uste dut mundu globalizatu honetan delinkuentzia ere globalizatuta dagoela. Bestalde, badago kontuan hartzeko beste elementu bat: etorkinak marjinaziora eroaten baditugu, oztopoak jartzen baldin badizkiegu lana aurkitzeko edo euren egoera erregularizatzeko orduan, behartu egiten ditugu ekonomia "beltzean" ibiltzera. Eta espazio marjinal horretan delitu txikiak egitea oso normala da. Baina horren erantzukizunaren zati handi bat estatuarena berarena da.

**Zein da etorkinendako ezarri den kupoa?**

Espainiako Estatu osorako 32.079 dira aurten. Gipuzkoari, 181 dagozkio. INEMek aurtengo aurrez ikusitako lan-eskaintza, ostera, 800 bat lanpostukoa da, etxeko lanetan, metalgintzan, eraikuntzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan banatuta. Estatuak Gipuzkoarako inposatutako kupoa, berriz, 181 lanpostukoa da. Denak ere, etxeko lanetarako. Langile horiek, gainera, etorkinen jaioterrietan kontratatu behar dira. Hortaz, ez dira kontuan hartzen dagoeneko hemen bizi diren agiri bako etorkinak. Bizkaian kupoa zero da; Araban, 296, eta Nafarroan, 100. Lan-eskaintza hori baino handiagoa da eta, ondorioz, hainbat lanpostu hutsik gera daitezke. Horrek ez dauka ez hanka ez buru.



ANDER GILLENEA

## "Laster, aniztasuna errealitate izango da eskoletan"

**Azken urteotan hona etorri diren etorkinak ondo integratu dira?**

Gaur egun, etorkinak diren neska-mutiko guztiek dute eskolara joateko eskubidea eta aukera. Edozelan ere, nire ustez, Hezkuntza Saila berandu ibili da kontu horretan. Etorkizunean, aniztasuna errealitatea izango da eskoletan eta jatorri ezberdineko geroago eta ikasle gehiago izango dira. Hortaz, hezitzaileak egoera horretara ondo egokitzeko prestatu egin behar dira, eta orain hasi dira neurriak hartzen.

**Gipuzkoan zenbat etorkin daude?**

8.000 inguru. Horietatik, erdia-edo Europako Batasuneko herrialdeetatik etorritakoak dira. Besteen artean, Ekuadortik, Kolonbiatik eta, azken urteotan, Argentinatik etorritakoak dira gehienak. Agiri bakoak zenbat diren jakitea ez da erraza, baina urtero 1.400 bat lagunek egiten du lehen lan-baimen eskaera. Gehienek etxeko lanetan dihardute, eta eraikuntzan edo metalgintzan ari direnak ere badira. Prostituzioan dihardutenak ere badira, baina horiek kontrolatzea gaitza izaten da; izan ere, poliziatik urrun ibiltzea izaten da horien nahia eta ez dute interes handirik izaten egoera erregularizatzeko. Horien asmoa da denboraldi batez lanean jardun eta dirua egin ondoren, berriro ere jaioterrira itzultzea.

*Podiuma*

# Luis Angel Ortega |XAKELARIA|

**Izatez lasartearra bada ere, azken hamaika urteak Arrasaten igaro ditu 33 urteko xakelari honek. Bizitzera berriro Lasartera joan bada ere, Informatikako Ingeniari honek Arrasateko San Andres Xake Taldean jokatzen du, eta Aste Santutan Euskadiko Txapelketan izan da. Euskadiko Txapelketarako sailkatzea zaila bada, hamargarren postua eskuratzea, zati bat zailagoa. Hala ere, ez da oso gustura geratu lortutako emaitzarekin.**



ARTXIBOA

Luis Angel Ortega Arrasate Hiria Txapelketan izango da.

**"Euskadiko Txapelketan hamargarrena izan naiz, baina ez naiz oso gustura geratu azken bi partidetan egindako lanarekin"**

**"Gaur arratsaldean hasiko da Arrasate Hiria Xake Txapelketa, eta partidak ikustera gonbidatu gura ditut interesatuak"**

**Nahikoa deskantsatu duzu Aste Santutan?**

Bai. Euskadiko Txapelketa martitzenean hasi zen; hortaz, Aste Santuko egunetan oporretan joateko aukera eduki dut.

**Zu izan zara ibarretik joan den xakelari bakarra.**

Bai, Aretxabaletako beste xakelari bat ere Euskadiko Txapelketara joateko sailkatu zen, baina azkenean ezin izan zen joan, hortaz, neu bakarra.

**Euskadiko Txapelketara joan eta hamargarren postua eskuratu. Pozik egoteko moduan, ezta?**

Egia esan, azkenean ez nintzen oso gustura geratu hamargarren postuarekin. Guztira zazpi jardunaldi jokatu genituen, eta lehenengo jardunaldietan ondo ibili nintzen. Bost partida jokatu eta gero, hirugarren postuan nengoen, eta goiko postuetan egoteko aukera oso gertu ikusi nuen.

**Azken bi partidatan, hortaz, gura baino okerrago.**

Bai, azkeneko bi partidak galdu egin nituen, eta batez ere azkenak eman zidan min handiena. Ia irabazita neukanean, denborak asko baldintzatu ninduen, eta azkenean, ezin irabazi. Hirugarren izatetik hamargarren postura pasatu nintzen.

**Pozik egoteko arrazoirik badaukazu, behintzat.**

Bai, hamargarren postua ez dago txarto, eta txapelketako maisuetako batekin jokatzean, Mario Gómezekin, hain zuzen, berdinketa lortu nuen; hortaz, ez dago txarto.

**Gaur Arrasate Hiria txapelketa hasiko da. Helburu berezirik?**

Aurtengoa txapelketaren bigarren urtea izango da, eta Arrasateko xakelariok Nazioarte mailan puntuak eskuratzeko sortu genuen txapelketa hau. Joan den urtean Josu Tornayk eta biok hainbat puntu eskuratu genituen txapelketa honetan, eta besteak beste, horregatik sailkatu naiz Euskadiko Txapelketara.

**Xakelari onak izango dira Arrasate Hiria Txapelketan.**

Bai, aurten ez da Carlos Nava, joan den urteko irabazlea egongo, baina xakelari onak egongo dira, Cristobal Limeres gernikarra, adibidez. Argi dago aurten ere maila ona egongo dela.

**Eta zure helburua?**

Ahal izanez gero, lehenengo hiruren artean egoten saiatuko naiz, baina ikusi egin behar. Lehenengo norgehiagokan derbia daukat, Josu Tornayrekin jokatu behar dut-eta.

XABIER URZELAI



## Debarroko pilota txapelketako finalak

Domekan Debarroko txapelketako finalak jokatu ziren Bergaran. Kadetetan, Azkarate-Aspe eskoriatzarrek 20-22 galdu zuten elgoibartarren aurka. Gazte mailan, Abarrategi-Errarte eskoriatzarrak Alberdi-Azagirre Elgetako bikoteari nagusitu zitzaien (22-9) eta senior mailan, Muguruza-Gutiérrez bergararrek Aretxabaletako Errasti anaiei irabazi zieten 22 eta 13.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Juanjo Arrieta

## Futbolaria eta entrenatzailea



Juanjo Arrieta Bergarako kamisetarekin, Agorrosinen.

Hainbat taldetan jokatu zuen.

2.B mailara igo zuen Eibar taldea.

Bergarako taldean 10 bat urte eman zituen.

Bergarako 3. mailako taldearekin debutatu zuen 18 urterekin, Andres Alzelai entrenatzailearen eskutik. Eibarren, Alavesen eta Mondran ere jokatu zuen, 3. mailan, defentsa postuan beti: "Eibarren oso talde ona geneukan, eta bi urtetan 2. mailara igotzeko zorian izan ginen, baina Tarragona eta Cádizen aurkako kanporaketak galdu genituen". Bere sasoiko jokalarietatik, Eduardo Agirre eta Jose Eulogio Garate nabarmentzen ditu, eta Antonio Corral eta Alzelai entrenatzaileekin asko ikasi zuela dio. Bergarara itzuli ondoren, erregionalean, liga amaitzeko hamar partidu faltan, entrenatzaile kargua eskaini zioten eta jokatzen eta entrenatzen egon zen bi urtez. Bergaran, guztira, 10 bat urte eman zituen entrenatzaile postuan, garai ezberdinetan. Urola hiru urtez entrenatu ondoren, 1984-85 denboraldian Eibarrek fitxatu zuen: "Eibarrek 28 urte zeramatzan 2. mailara igotzeke eta 85-86 denboraldian 2.B mailara igotzea lortu genuen, Coria eta Badajoz kanporatuz. Ospakizun handia izan zen". Hala ere, lanagatik futbola utzi behar izan zuen. Urtebeteko atsedena hartu ondoren, Aretxabaleta 3. mailan zuzendu zuen, denboraldia bukatu ez arren. Bere esanetan, "entrenatzaile bezala aldagela dominatu izan dudala uste dut. Bestalde, egindako lagunak dira gauzarik onena"./E. M.

***"28 urte ondoren Eibarrekin 2.B mailara igo genuen"***



Juanjo Arrieta • Bergara • 1943

BABESLEA

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

# Txakur leren proba domekan Gorlan

## Arraza guztietako txakurrak onartuko dira eta 40 partaide inguru bilduko dira

**Domekan, txakur leren lasterketa egingo da Gorlan, 11:00etatik aurrera. Bergara Mushing taldeak antolatutako proban, 40 partaide inguru izango dira, eta Josep Domingo eta Santi Campos ezagunak ere etorriko dira.**


HILARIO AZKARGORTA

Domekako proban 40 partaide bilduko dira eta 200 bat txakur izango dira Gorlako zelaietan, nordikoak nagusiki.

Aurtengoa Bergarako probaren bederatzigarren edizioa izango da, eta antolatzaileek orain arteko partaidetzarik onena lortu dute. Julen Narbaiza Bergara Mushing taldeko ordezkariaren berbetan, "gaur egun lurrean egiten den Estatuko probarik onenetakoa da Gorlakoa eta espezialistarik onenak etortzea espero dugu. Josep Domingo 3.a izan da aurten Pirena proban eta, Santi Campos txakur leren munduan aitzindarietako bat da, historiko bat".

Ohikoa denez, partaideak erlojuz kontra ibiliko dira domekan. Kantinatik Trekutzera bitarteko joan-etorria egin beharko dute, 9 kilometroko ibilbidea, hain zuzen. Narbaizaren arabera, "sprinteko proba da, abiadura hutsezkoa, eta benetan ikusgarria izaten da". Jesus Reigoso "Lobito" naparra eta Roberto Proermuarra (azken edizioetako irabazleak) ere irteeran izango dira. Era berean, konfirmatzeke dagoen arren, Axen Garitano bergararrak eta Itoiz Armendariz aretxabaletarrak ere hartuko dute parte, ziurrenik. Partaideek erabiliko dituzten txakur kopuruaren arabera, hainbat kategoria bereiztuko dira.

EDU MENDIBIL

## Kirolabur

### XAKEA/ARRASATE

Arrasate Hiria xake txapelketa jokatuko da, gaur hasi eta ekainaren 7ra bitartean. Partidak San Andres xake taldeak Altamiran duen lokalean (Jose Luis Iñarra kaleko 32. zenbakian) izango dira egubakoitzero, 19:00etatik 23:00etara bitartean.

### ESKUBALOIA/OÑATI

Lehen maila nazionalera igotzeko ligatxoa Oñatin egingo du Aloña Mendi taldeak, Espainiako Federazioak talde oñatiarrari utzi dizkio-eta antolaketa lanak. Aipatutako igoera fasea apirilaren 26tik 28ra bitartean jokatuko da Zubikoa kiroldegian.

### MOTORRA/CORCUERA

Ander Corcuera gidari arrasatearra 3. postuan sailkatu zen domekan Espainiako Hyunday Kopako lehenengo proban, Albaceteko La Torrecica zirkuituan.

### OÑATI/IKASTAROA

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta, arnasketa tekniken eta erlajazioaren gaineko ikastaroa izango da Oñatin, apirilaren 26an eta 27an eta maiatzaren 3an eta 4an. Argibideak, 943 71 63 57 telefono zenbakian

PERKUSIO IKASTAROAK

"COMPAS Y CAJÓN FLAMENCO"
Apirilak 15, 22, 29, eta maiatzak 6 eta 13
Irakaslea: **Angel Lopez**

ARABIAR ERRITMOAK
Maiatzak 20, 27 eta ekainak 3, 10 eta 17
Irakaslea: **Iñaki Bruña**

**ARRASATEko Gazteluondo aretoan**
**Ordutegia: 18:00etatik 20:30etara**
Kurtso bakoitzaren prezioa 21€
**Informazio gehiago eta izena emateko:**
Gazte Bulegoan edo 943 79 80 25 (Iñaki)

ARRASATEKO UDALA
Kultura Saila

Giokela, Okela Garbia Muturretik Buztanera
Giokela, Berme Osoko Okela
Giokela, Kalitatezko Okela

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua
CERTICAR

OÑATI
TXANTXIKU Harategia
Arantzazu, 2

ANTZUOLA
MUJIKA Harategia
Kalebarren, 1

ARRASATE
J. ELORTZA Harategia
Juan Bengoa, 1
J.R. OTAMENDI Harategia
Ferrerias, 20
SALABERRIA Harategia
Mondragones z/g (azoka)
AGIRRE-ETXE Autozerbitzua
Zarugalde, 33

BERGARA
URCELAY Harategia
Ibargarai, 16
JON LETURIA Harategia
Pedro Deuna, 24
L. M. REZOLA Harategia
Matxiategi, 7

Giokela
Gure Kalitatea
GURE KALITATEA
Zer jan, hura izan


DENA
0,60 €tan
100 pta.tan
EROSKi
Erosten jakin
Balizko eskaintza apirilaren 18tik 24ra.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko apirilaren 12a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 12tik 19ra


# EUSKALKANTUTXAPELKETA

**Gipuzkoako txapelketa hasita dago, eta inoiz baino parte hartzaile debagoiendar gehiago daude: guztira, ibarreko zortzi lehiakide**

Abian da, joan den zapatutik, apirilaren 6tik, Euskal Kantu Txapelketaren aurtengo edizioa. Lurralde bakoitzeko kanporaketak egingo dituzte lehenengo, lurralde guztietan txapelketak antolatuko ez diren arren, eta Gipuzkoakoa hasi da dagoeneko. Aurten, Debagoienak inoiz baino protagonismo handiagoa izango du lehiaketa horretan; izan ere, Gipuzkoako finala Bergaran izango da, apirilaren 27an.

Akaso Debagoieneko herri bat aukeratzeagatik-edo, kontua da aurten inoiz baino lehiakide debagoiendar gehiago dagoela. Hain zuzen ere, ibarreko zortzi talde, bikote eta bakarlari dabiltza. Zorte on guztioi! /LEIRE KORTABARRIA



GOIO ARANA

LEHIAKETAK/ EUSKAL KANTU TXAPELKETAKO GIPUZKOAKO KANPORAKETAK JOKATZEN ARI DIRA

# Ibarreko kantariak, sariaren bila

JOAN DEN ZAPATUAN JOKATU ZEN LEHEN KANPORAKETA, ETA BIGARRENA APIRILAREN 13AN IZANGO DA

**Jokatu izan den hogei urteotan, aurten izaten ari da Debagoieneko parte hartzaile gehien Euskal Kantu Txapelketan. Hogeita sei parte hartzailetik, zortzi debagoiendarrak ditugu aurten: Bergarako bost talde, bikote eta bakarlari; Arrasateko bi talde; eta Oñatiko bikote bat.**

Mikel Urdangarin, Asier Gozategi, Erramun Martikorena, Laiotz, Etzakit eta beste hainbat abeslari eta talde ezagutzera eman arren, gurean ez du orain arte izen handirik izan Euskal Kantu Txapelketak. Horretaz konturatu ziren aurten antolatzaileak: "Orain arte, saio gehienak Donostialdean edo inguruan antolatu izan ditugu; baliteke hori izatea arrazoia", onartu digu Dani Ugaldek, antolatzaileetariko batek. Aurten, ordea, Gipuzkoako finalerako Bergara aukeratu dute, eta erabaki horrek izan du, bai, debagoiendarrongan eragin positiboa.

**GEHIENENDAKO, LEHENENGO ALDIA**

Gure ibarra betidanik izan da musikazalea, eta musika eskola eta irakasle asko dago. Debagoieneko aurtengo lehiakide gehienek euren irakasleek animatuta eman zuten izena lehiaketan. Gehienondako, lehiaketaren baten parte hartzen duten lehenengo aldia izan da. Batzuek badute esperientzia, euren herrietako orfeoietan abesten dute-eta; beste batzuek eskarmentua ez, baina ilusioa gainezka dute.

Bik, Karlos eta Joseba eta Maitane eta Saioa bikoteek, izan zuten epaimahaiarekin aurrez aurrekoa, apirilaren 6an. Musika tresnaren bat erabil dezaketen arren, ahotsa bakarrik puntuatzen dute. Besteek apirilaren 13an parte hartuko dute. Bi saioen artean 13 onenak Beasainera pasatuko dira, eta hor erabakiko da zeintzuk jokatuko duten finala, Bergaran.

LEIRE KORTABARRIA



EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA

**Gaur egun ezagun diren hainbat abeslari eta taldek euskal kantu txapelketan eman zituzten lehen urratsak.**




Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

EKORNES®

UDAKO BRIGADAK 2002

Mexiko, Nikaragua eta Kuba

i

BERGARA: 943 76 21 48
BILBO: martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03 (20:00-22:00)
DONOSTIA: martitzen eta eguenetan. 943 28 65 04 (19:30-21:30)
GASTEIZ: eguenetan. 945 14 93 79 (20:00-23:00)
IRUÑEA: eguaztenetan. 948 20 60 55 (20:00-22:00)
Posta elektronikoa: *kibilbo@herriak.org*




KOMITE INTERNAZIONALISTAK

# Finala Bergaran izango dela eta, ibarreko kantari gehiago aurten

**Euskal Kantuzaleen Elkarteak, txapelketaren antolatzaileak, apropos aukeratu zuen Bergara finalerako, horrek Debagoieneko parte hartzea suspertuko zuen itxaropenarekin. Eta helburua hori bazen, bete-betean asmatu dutela esan behar; 26 parte hartzaileetatik, zortzi debagoiendarrak dira.**

**Bi bakarlarik hartuko dute parte: Naroa Alberdi eta Argiñe Agirrezabal bergararrek. Biek hala biek Ibarran abestuko dute, apirilaren 13an.**

**Bikoteei dagokienez, Gauargi oñatiarrak ere Ibarran izango dira; Karlos eta Joseba, alde batetik, eta Maitane eta Saioa, bestetik, lehen kanporaketa saioan izan ziren, apirilaren 6an.**

**Hiru taldek ere ordezkatuko gaituzte: Gurtza eta Xarma neska talde arrasatearrak, hamarna kiderekin —nahiz eta batzuek bi taldeetan parte hartu—, eta Bergarakuak; horiek nongoak diren esan beharrik ez dago. Hirurak apirilaren 13an lehiatuko dira.**

## 'Gurtza' eta 'Xarma'

Argazkian, Jone Fernández, Miren Fernández eta Jone Etxeberria arrasatearrak agertzen dira, baina 15 urteko beste 11 neskarekin hartuko dute parte lehiaketan, bi taldetan. *Lau Teilatu*, *Iluntzen*, *Let it Be* eta *Begiak* abestiak prestatu dituzte. Urduri daudela esan digute eta ez dutela euren burua irabazle imajinatzen.



## Karlos eta Joseba

Laugarren sailkatu ziren Andoainen, *Ai ze plazera* abestiarekin. Nagusienak ziren, eta horrek eragina izan zuelakoan daude: "Epaimahaikideek gaztetasuna baloratzen zutela uste dugu", diote bergararrak eta antzuolarrak. Edozelan ere, "oso gustura" ibili zirela ere esaten dute. Irudian, eurekin jardun zuen gitarra jotzailearekin agertzen dira.



## 'Bergarakuak'

Finala Bergaran izango zela ikusita, parte hartzera animatu ziren 20 eta 40 urte arteko hamar lagun hauek, euren irakasleak bultzatuta. *Zure begi ederrak* abestia eta Filipinetako kantu bat aukeratu dituzte lehiaketarako. "Parte hartzearren eta musikarako grinagatik gaude lehiaketan", diote taldekideek.



## Argiñe Agirrezabal

*Oliver* musikalean rol bat bete zuen Argiñe Agirrezabal bergararrak, eta horko abesti bat eramango du txapelketara. Ez da kantuaren munduan iritsi berria: sei urte daramatza kantua ikasten eta orfeoiarekin abesten, baina lehenengo lehiaketa du hau. "Ondo abestera noa; ez dut irabaztean pentsatzen", dio Argiñek.



## 'Gauargi'

Euren ahots gazteak eta "baleriana piloa" eramango dituzte Ander eta Maite oñatiarrek. 14 eta 15 urteko gaztetxo hauek gustuko dute abestea, eta ez dute bat ere txarto egiten, Miren Plazaola irakaslearen ustez; hark animatuta erabaki zuten parte hartzea. Ken7 taldearen abesti bi kantatuko dituzte hilaren 13an, Ibarran.



## Naroa Alberdi

Buru-belarri entseatzen dabil 17 urteko bergararra. Aurten hasi da kantua ikasten Bergarako Musika Eskolan. Lehenengo aldiz kantatuko du jendaurrean, baita epaimahai baten aurrean ere. Ahalik eta ondoen jarduteko asmoz doa, "eta irabaziz gero, hobeto", dio. Hiru biolin, biolontxeloa eta ahots ederra izango ditu Naroak horretarako.



## Maitane eta Saioa

GOIENKARIAn jaso zuten txapelketaren berri, eta bestalde, kantu irakasleak animatu zituen parte hartzera. Baltsea eta rumba jorratu zituzten joan den zapatuan, eta "espero baino hobeto" jardun zuten: hirugarren sailkatu ziren, *Zure albotik urrun nago* abestiarekin. Argazkian, Nagore biolin jotzailearekin.



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko apirilaren 12a

# Apirilak 12-19

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Muerte accidental de un anarquista*** lana ikusteko aukera izango da domekan, hilaren 14an, Amaia antzokian, 19:30ean.

► **Ipuin kontakizuna egingo du Ray Bueno kontalariak** hilaren 16an, martitzenean, Santa Marinako liburutegian, 17:00etan, eta Monterronen, 18:30ean. Bost eta zortzi urteko umeei zuzendutako ekintza da.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Su ta Gar taldeak** kontzertua eskainiko du apirilaren 18an, gaztetxean, 20:30ean.

### BERGARA

► **M.C.D. eta Segismundo Toxicomano** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 12, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Hacker Techno Party** *techno* musika jaialdia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00.

► **Musika Bandaren kalejira eta kontzertua** izango dira apirilaren 14an pilotalekuan, 12:30ean.

► **Benito Lertxundi kantautorearen** emanaldia izango da apirilaren 19an pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak salgai daude honako lekuetan: Pol-Pol, Ariznoa, Abenida, Kortazar, Txuringo eta Etxepare liburu denda.

### ELGETA

► **Xabier Amuriza eta Mixel Ducau** musikariek *Bizkaiko Kopla Zaharrak* emanaldia egingo dute gaur, hilak 12, liburutegian, 22:00etan.

### OÑATI

► **Javier Arrillaga eta Angel Unzu** gitarra jotzaileek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 12, institutuan, 22:30.

## DEIAK

### ARAMAIO

► **Arabako Bertsolari Txapelketako** lehen finalaurrekoa jokatuko dute bihar, zapatua, kultura etxean, 19:00.

### ARRASATE

► **Ahozkotasunaren gaiaren inguruko hitzaldia** egingo du Andoni Egañak hilaren 16an Monterrongo aretoan, 18:30ean, Arrasateko Institutuak antolatuta.

### BERGARA

► ***Itoitz Bizirik* lelopean antolatutako kale agerraldira joateko** autobusa antolatu dute gaztetxeko eragileek. Iruñean izango da, bihar, zapatua. Izenematea gaztetxean, Arranon eta Pol-Polen egin daiteke.

► **Adimen urritasuna dutenen aldeko elkarteak, Adegik,** hitzaldia antolatu du eguenerako, apirilaren 18rako, kultura etxean, 19:00etan.

► **Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu** udako udaleku irekietarako. Izena emateko, joan ludotekara, apirilaren 15etik 20ra bitartean.

► **Komite Internazionalisten udako brigaden aurkezpena** izango da hilaren 16an kultura etxean. 19:30.

► **1936an jaiotakoen kinto bilera** izango da apirilaren 20an. Txartelak salgai daude Eusebio II tabernan. Mugaeguna, apirilaren 17a.

### ELGETA

► **Odol ateratzeak** egingo dituzte hilaren 15ean, astelehenean, udaletxean, 18:00etatik 20:00etara. Herriko odol emaile guztiei joateko deia egiten diete antolatzaileek.

### ESKORIATZA

► **Etxebizitza politikaren gaineko hitzaldia** antolatu du Ezker Batua alderdiak apirilaren 16rako. Kultura etxean izango da, 19:00etan.

► **Gaztekantoi 13tik 16 urtera arteko gazteendako topagunea** antolatu du Udalak. Apirilaren 13tik ekainaren 9ra arte iraungo du. Mahai-jolasak, musika, aldizkariak, jolasak… izango dira, beste ekintza batzuen artean. Kultura etxean izango da, zapatuetan (17:00-21:00) eta domeketan (17:00-20:00).

### OÑATI

► **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketen gaineko hitzaldia** egingo du Beatriz Etxeberriak Txantxiku Ikastolan apirilaren 16an, 18:30ean.

► ***Jolas kooperatiboaren eragina haurraren garapenean*** hitzaldia egingo du Maite Garaigordobil adituak apirilaren 18an, eguenean, Txantxiku Ikastolako egoitzan, 18:30ean.

► **Urzelai-Txinparta I. Bertso Sariketa** jokatuko da bihar, zapatua. Oñatiko Bertso Eskola eta Urola Garaiko Eskola izango dira aurrez aurre, 20:30.

► **Apirilaren 21erako mendi irteera** antolatu du Aloña Mendik. Izena emateko azken eguna apirilaren 19a izango da.

► **Uztaileko udaleku irekietarako begiraleak** behar dira. Izena emateko, jo gaztelekura, apirilaren 22a baino lehen, zapatu goizez, edo 636 24 45 66an.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Konpas eta Kaxa Flamenkoko perkusio ikastaroa** antolatu du Iñaki Bruñak. Apirilaren 15ean, 22an eta 29an eta maiatzaren 6an eta 13an izango dira eskolak, 18:00etatik 20:30era. Informazio gehiagorako, deitu 943 79 80 25 telefonora (Iñaki).

► **Hasiera mailako taila ikastaroa** antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak, apirilaren 23tik aurrera. Izena emateko, deitu Felixi (943 79 40 79) edo Jose Mariri (943 79 77 57), iluntze aldera.

### BERGARA

► **Zaharberritze ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak,** apirilaren 22tik maiatzaren 30era arte. Izena emateko epea apirilaren 6tik 17ra izango da, Jardunen egoitzan.

► KONTZERTUAK

## ASIER SERRANOREN AZKEN DISKOA

Asier Serrano ez da hasiberria musikan; izan ere, Lorelei taldeko partaide izan zen; talde harekin disko bi atera zituen. Orain, ordea, bakarlari moduan lehenengo diskoa, *Ez esan inori*, argitaratu du Asier Serranok, eta diskoa aurkezteko hainbat kontzertu eskainiko ditu Debagoienean. Hain zuzen ere, gaur bertan hilak 12, Bergarako gaztetxean joko du, 22:30ean; eta datorren egubakoitzean, apirilaren 19an, Elgetako gaztetxean egingo du emanaldia, Ken 7 taldearekin batera, 23:00etatik aurrera.

**Non:** Bergaran eta Elgetan.
**Noiz:** Apirilaren 12an eta 19an.
**Ordua:** 22:30ean eta 23:00etan, hurrenez hurren.



**ARKITEKTOA**

Arrasateko Udalak, ARKITEKTO bat kontratatu nahi du, aldi batez, bitartekotasun izaeraz.

Interesdunak Arrasateko udaletxera etorri behar dira **apirilaren 24an, goizeko 10:00etan,** hautaketa probak egiteko.

**Oinarriak**: Udaletxean jaso daitezke edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)*

Arrasateko Udala

**Pertsonal Saila**

ARRIETA & SAN MIGUEL
INMOBILIARIA-AGENTZIA
API

- Urkulu inguruan BASERRIA salgai
- ETXEBIZITZAK Arrasaten
  - Erdialdean. 112 m². Lau logela, komun bi, trastelekua, terraza bi. Kokapen ezin hobea.
  - Agerre kalean. 44 m². Logela bi. Guztia kanpoaldera. Guztiz berrituta.

Tel : 943 71 17 81 • Fax: 943 79 20 54
**Iturriotz kalea 23 • ARRASATE**
e-mail: inmo@arrietasanmiguel.com • **www.arrietasanmiguel.com**



## UDABERRI-UDA DENBORALDIKO MODA

Denboraldiko jantzien Moda Desfilea antolatu dute Oñatiko Txantxiku Ikastolakoek, ikasketa-bidaia egiteko laguntza lortzeko asmoz. Apirilaren 19an izango da, Santa Ana aretoan, 19:30etik aurrera. Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

### OÑATI

► **Joera berrien ikastaroa** antolatu du Kirol Sailak. Izena emateko epea zabalik dago. *Fit bike* (aerobika bizikletarekin uztartuta), *power dumbell* (aerobika pisuekin uztartuta) eta *personal training* edo ariketa pertsonalizatuen ikastaroak eskainiko dituzte. *Fit bike* ikastaroak bi hilabete iraungo du; besteak, apirilaren 20an eta 27an. Izena emateko, deitu 943 71 63 75 edo 943 77 91 67 telefonoetara.

► ***Funky-hip hop* saioa** antolatu du Gaztedia Sailak. Apirilaren 27an izango da. Izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, jo Gazte Informazio Bulegora.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► ***Ipuinez ipuin*** erakusketa antolatu dute liburutegiak eta Galtzagorri elkarteak, Monterronen. Apiril osoan izango da zabalik. Euskaraz, gaztelaniaz eta munduko beste hainbat hizkuntzatan idatzitako ipuinak ikusteko aukera izango da erakusketa horretan.

### BERGARA

► **V. Abdon Juaristi margo lehiaketako margolanen** erakusketa izango da apirilaren 19tik 28ra bitartean kultura etxean.

► **Juxe Areta argazkilariaren lanak** ikusteko aukera egongo da apiril osoan gaztetxean. Musika kontzertuetan ateratako argazkiak dira.

## LEHIAKETAK

### BERGARA

► **Mendekoste jaietako pegatinako esaldia asmatzeko** lehiaketa deitu du Jardun elkarteak. Ikastetxe eta tabernatan ipini dituzten kaxetan bota beharko dituzue zuek asmatutako esaldiok, apirilaren16a baino lehen.

### OÑATI

► **III. Oñati Hiria literatura lehiaketa** antolatu berri du Udalak. 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. Lanak Oñatiko Udaleko kultura edo euskara sailera bidali beharko dituzue. Azken eguna apirilaren 26a izango duzue.

## BIDEOA

### BERGARA

► ***Taxi Driver* filma emango** dute domekan, hilaren 14an, gaztetxean, 18:00etan.

► ***El tercer hombre* filmaren emanaldia** izango da apirilaren 16an, gaztetxean, 22:00etan.

# Zinema

## ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

***Hable con ella***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

***El enigma de Gaspar Hauser***
Eguena, zine kluba: 21:30.

## BERGARA

■ NOVEDADES

***El florido pensil***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

***E.T.***
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

***Italiano para principiantes***
Eguena, zine kluba: 20:00.

## OÑATI

■ SANTA ANA

***El hijo de la novia***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Recursos humanos***
Eguena, zinekluba: 20:00.

## EIBAR

■ UNZAGA

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

***En la ciudad sin límites***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ

■ GURIDI

***La habitación del pánico***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***John Q.***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Falsa identidad***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

***E.T.***
Egunero: 17:30.

***El conde de Montecristo***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza: 17:30, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

■ MIKELDI ZINEMAK

***Los Tenenbaums***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Kate y Leopold***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Monster's ball***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Nunca juegues con extraños***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Peter Pan***
Egunero: 17:30.

***El embrujo de Shangai***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***El conde de Montecristo***
Egunero: 19:45, 22:45.

***Una mente maravillosa***
Egunero: 17:00, 19:45.

***The Majestic***
Egunero: 17:00.

***El florido pensil***
Egunero: 22:30.

***Falsa identidad***
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

***Náufragos***
Egunero: 20:15, 22:45.

***La Spagnola***
Egubakoitza: 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:30, 22:45.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

***El hombre que nunca estuvo allí***
Egubakoitza eta domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El hijo de la novia***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Hable con ella***
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

***Todas las azafatas van al cielo***
Egunero: 17:30, 22:30.

***Monster's ball***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El pabellón de los oficiales***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

***Elling***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Gosford park***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

■ STER ZINEMAK

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza: 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Zapatua: 12:25, 16:20, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:25, 16:20, 18:25, 20:25, 22:25.

***John Q.***
Egubakoitza: 17:55, 20:15, 22:35, 00:55.
Zapatua: 12:00, 15:35, 17:55, 20:15, 22:35, 00:55.
Domeka: 12:00, 15:35, 17:55, 20:15, 22:35.

***Kate y Leopold***
Egubakoitza: 17:30, 20:05, 22:40, 01:15.
Zapatua: 12:20, 17:30, 20:05, 22:40, 01:15.
Domeka: 12:20, 17:30, 20:05, 22:40.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza: 18:00, 20:30, 23:00, 01:30.
Zapatua: 12:20, 15:30, 18:00, 20:30, 23:00, 01:30.
Domeka: 12:20, 15:30, 18:00, 20:30, 23:00.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 18:15, 20:40, 23:05, 01:30.
Zapatua: 12:10, 15:50, 18:15, 20:40, 23:05, 01:30.
Domeka: 12:10, 15:50, 18:15, 20:40, 23:05.

***Un padre de cuidado***
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:40, 22:50, 01:05.
Domeka: 18:30, 20:40, 22:50.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 18:00, 19:35.
Zapatua eta domeka: 12:40, 16:25, 18:00, 19:35.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 18:05, 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:30, 16:10, 18:05, 20:00.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.
Zapatua: 12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:45.

***Falsa identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:30.
Domeka: 22:10.

***El conde de Montecristo***
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 01:00.
Domeka: 22:15.

***Ana y el rey***
Zapatua eta domeka: 12:05, 15:30.

■ YELMO CINEPLEX

***No es otra estúpida película americana***
Egubakoitza: 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:25.
Zapatua: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:25.
Domeka: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20.

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza: 15:55, 18:05, 20:30, 22:25, 00:30.
Zapatua: 12:10, 15:55, 18:05, 20:30, 22:25, 00:30.
Domeka: 12:10, 15:55, 18:05, 20:30, 22:25.

***Falsa identidad***
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:45, 00:35.
Domeka: 19:45, 22:45.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Zapatua: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30.

***John Q.***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:50.
Zapatua: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:50.
Domeka: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35.

***El florido pensil***
Egubakoitza: 16:05.
Zapatua eta domeka: 12:35, 16:05.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 15:40, 17:30.
Zapatua eta domeka: 11:45, 15:40, 17:30.

***Un padre de cuidado***
Egubakoitza: 15:35, 17:35, 19:40, 21:50, 00:05.
Zapatua: 12:30, 15:35, 17:35, 19:40, 21:50, 00:05.
Domeka: 12:30, 15:35, 17:35, 19:40, 21:50.

***E.T.***
Egubakoitza: 15:35, 17:55, 20:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:35, 17:55, 20:20.

***Monster's ball***
Egubakoitza: 15:20, 17:30, 19:55, 22:20, 00:40.
Zapatua: 11:40, 15:20, 17:30, 19:55, 22:20, 00:40.
Domeka: 11:40, 15:20, 17:30, 19:55, 22:20.

***La última profecía***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30, 00:50.
Domeka: 22:30.

***Náufragos***
Egubakoitza: 15:40, 18:00, 19:55, 21:55, 00:00.
Zapatua: 12:20, 15:40, 18:00, 19:55, 21:55, 00:00.
Domeka: 12:20, 15:40, 18:00, 19:55, 21:55.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:20, 22:40, 00:40.
Zapatua: 12:15, 16:00, 18:15, 20:20, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:15, 20:20, 22:40.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:15, 22:40, 00:55.
Zapatua: 11:55, 15:30, 17:50, 20:15, 22:40, 00:55.
Domeka: 11:55, 15:30, 17:50, 20:15, 22:40.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 15:50, 17:50, 19:30, 21:20.
Zapatua: 11:50, 15:50, 17:50, 19:30, 21:20.
Domeka: 15:50, 17:50, 19:30.

***Kate y Leopold***
Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:05, 22:25, 00:50.
Zapatua: 11:30, 15:20, 17:40, 20:05, 22:25, 00:50.
Domeka: 11:30, 15:20, 17:40, 20:05, 22:25.

***The Majestic***
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Domeka: 21:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Gosford Park:* ●●●●● / *Monstruos S.A.:* ●●●● / *Hable con ella:* ●●●● / *Una mente maravillosa:* ●●● /**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## EN LA HABITACIÓN

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ZUZENDARIA:** Todd Field.
**AKTOREAK:** Sissy Spacek, Tom Wilkinson, Marisa Tomei.

*En la habitación* filmaren hasiera ia ekostunbristatzat har dezakegu. Honek kostako herri txiki baten bizi den familia baten eguneroko bizitza erakusten digu. Familia honakook osatzen dute: mediku batek, bere emazte koruzuzendariak eta horien semeak. Semeak unibertsitatera joan nahi du eta bera baino helduagoa den eta bi seme-alaba dituen neska banandu batekin amodio harremanak ditu. Lehenengo zati honek pertsonaien izaera ezagutzeko (aita semearen adiskide izaten ahalegintzen da, ama menderatzaileagoa da) eta bikoteak semearen jokaera ulertzeko egiten dituen ahaleginak ikusteko aukera ematen digu. Baina bat-batean familia arrunt honen istorioa zeharo aldatuko da semea hil egiten dutenean. Hortik aurrera, filma gurasoen sentimenduen (tristezia, babes falta, bakardadea, ezintasuna, amorrua) eta sentsazio-zurrunbiloaren disekzio perfektu bihurtzen da. Gertatutako guztiak itzala uzten du eta bikotea, elkartzeko baino gehiago, aldentzeko balio izango du. Bigarren zati honetan, hauek bere bizitzekin jarraitzeko eta jendearekin harremanetan jartzeko egiten dituzten alferrikako ahaleginak erakusten zaizkigu. Gauzak



ez dira inoiz lehengo moduan izango. Honen adibide argi karta jokoan aritzen diren bi eszena ditugu.

Filmaren estiloari dagokionez, harrigarria da zuzendariak pertsonaiek barnean gorde nahi dituzten sentimenduak ezagutu eragiteko duen ahalmena. Urritasun eta lehortasun osoz, pertsonaiak jasaten ari diren oinazea maisutasunez islatzen du. *Field*ek elipsiak dotoreziaz erabiltzen ditu istorioaren indarra eta sendotasun dramatikoa lortzeko. Azkenean, bikoteak bere sentimenduak kaleratuko ditu eztabaida ezin garratzago batean. Eztabaida honek filmaren tentsioz betetako bukaera erdigarrira eramaten gaitu.

Esandako guztiari Sissi Space-ek eta Tom Wilkinsonek sentikortasun osoz egindako interpretazioak gehitzen badizkiogu, geure buruan denbora luzean iraungo duen filma dugu.

ANTONIO ZABALA

# 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate**. Santa Marinan 70m²ko etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. 943 79 20 98.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berogailu indibiduala… 943 79 39 78 (20:00etatik 21:00etara) edo 620 98 49 14 (edozein ordutan).

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Gelak bakarrik ere aloka daitezke. 699 84 83 75.

**Aretxabaleta.** San Migel auzoan etxebizitza ematen da errentan. Jantzita. 943 79 21 86 edo 626 60 11 07.

**Vera** (Almeria). Apartamentu bat ematen da errentan naturista-gune baten. Jantzita. 657 73 94 25 (arratsalde eta gauetan). Posta elektronikoa: *vehia@hotmail.com.*

**Donostia**. Hurrengo ikasturterako etxebizitza ematen da errentan bi neska ikaslerendako. 660 64 16 87.

**Almeria**. Paseo Maritimon bi logeladun etxebizitza ematen da errentan uztaila, abuztua eta irailean. Hamabost egun, 600 euro. 649 03 47 20.

**Almeria**. Hiri erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hilabetea, 600 euro. 649 03 47 20.

**Bergara**. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 699 18 75 68.

**Peñiscola**. Apartamentua ematen da errentan hondartzatik 100 metrora, aparkaleku eta igerilekuaz.Uztaila, abuztua eta iraila. 943 79 48 82. Toñi.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza**, Aretxabaleta edo Arrasate. Bikote batek etxea hartuko luke errentan. 943 71 52 14.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate** edo inguruan etxe konpartitu baten bila nabil. 943 77 08 69 edo 677 83 47 29.

**Bergara**. Pertsona bat behar da etxebiziza konpartitzeko. 616 33 05 46.

**Arrasate**. Zigarrolan pertsona bat behar dugu etxibizitza osatzeko. 609 13 39 70.

**Arrasate**. Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. 615 75 57 65. Deitu 20:00etatik aurrera.

# 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Arrasate.** Txindoki dorreko goiko solairuan garajea salgai 943 79 24 10.

**Bergara**. Ozaetan garajea salgai. 659 81 61 04.

# 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Kanpoaldean lokala hartuko genuke errentan. 605 76 93 83.

# 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Banatzailea**. Tailerreko edo lantokiko banatzaile moduan lan egingo nuke. B1 gidabaimena daukat. 943 78 28 15 edo 678 22 97 77.

**Emakumea** gertu bulegoetan garbiketak egiteko. 639 46 50 15.

**Neska** gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona zaharrak zaintzeko. 669 04 35 61.

**Arrasate**. Emakumea gertu umeak zaintzeko. Telefonoa: 943 79 13 10.

**Mutil** gaztea gertu pertsona zaharrak zaintzeko edo ostalaritzan lan egiteko gertu. 679 89 37 26. Hector.

**Neska** gertu goizetan orduka lan egiteko. Paperak ditut. 619 83 68 19.

**Neska** gertu etxeko lanak egiteko, orduka edo egun osoz. 656 76 81 61.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Esperientziadun emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 943 79 71 78. Deitu 21:00etatik aurrera.

# 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. ESKAINTZAK

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea OHOko eskola partikularrak emateko gertu. 843 78 13 44.

**Bergara**. Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emango nituzke. 943 76 15 19 edo 696 54 88 76. Jone.

**Arrasate**. Zuzenbide lizentziaduna Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. Euskaraz edo gaztelaniaz. 943 79 83 46.

**Bergara**. Enpresaritzako hiru ikaslek estatistika eta algebra linealeko eskolak hartuko lituzkete. 943 76 39 61.

### 502. ESKAERAK

**Aretxabaleta**. DBHko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 16 24.

**Arrasate**. Alemaneko eskola partikularrak hartuko nituzke. 650 77 13 22.

**Arrasate**. Ingeleseko irakaslea behar dut.

**Arrasate**. Ingeleseko irakaslea behar da DBHko 2. eta 3. mailarako. 943 79 06 32.

# 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Land Rover** Discovery salgai. SS-AW. Ondo zainduta. Gehigarriak. 652 77 40 03.

**Montesa** Cota 315 trialeko motoa salgai. 1999. urtekoa. 943 76 64 01 edo 943 73 12 82.

**Honda XR** 600 Supermotard motoa salgai. Oso berezia. 3.900 euro. 68741 52 47.

**Golf CL** 1600 Diesel autoa salgai. 1.081,82 euro negoziagarriak. Saltzeko premia dut. 659 74 10 79.

# 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Labrador Retriever** arrazako pedigridun txakurkumeak salgai. Bi hilabete dituzte. 943 76 02 51 edo 669 67 21 03.

# 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Karabana** salgai. Adria 5500 modeloa, zazpi lagunendako tokia. Berogailua, hozkailua…4000 € negoziagarriak. 945 44 52 31.

**Nikon FM** 10 argazki makina salgai, gutxitan erabilitakoa. 943 79 83 33 edo 605 72 75 45.

**Canon EOS** 300 argazki makina salgai. 29-90 eta 75-300 mm-ko objetiboekin. Irailera arte garantia ofiziala dauka. 420,71 €. 676 14 19 28.

**Dreamcast**-a salgai. Bi mando. Memory Card. 13 joku. 100 eurotan salgai. 943 79 92 48 (Mikel) Eguardietan deitu.

**Bikoteendako** logela osoa salgai. Urtebete dauka. Egoera onean. 943 79 37 23,

**Ignis** markako hozkailua salgai. Egoera onean eta merkea. 943 79 37 23.

**Bizikleta**. 100 mm-ko ibilbidea duen mendiko RST suspensioa daukan bizikleta salgai. Egoera eta prezio ona. 647 66 45 32 edo 943 76 28 88.

**Koltxoia**. Gutxi erababilitako 1,35x1,85 m.ko koltxoia eta neurri berdineko somierra salgai. Biak 90 euro. 943 65 07 10. Arratsaldez. Patxi.

### 802. EROSI

**Pianoa**. Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. 943 79 92 02. Arratsaldeetan deitu.

**Akordeoi** kromatikoa erosiko nuke. Convertor baxuak, 46 nota eta bi edo hiru ahotsekoa. Ahal bada, Pigini markakoa. 943 71 50 32.

**Umea** paseatzeko kotxe-aulkia erosiko nuke. 943 79 37 68.

**Bizikleta** estatikoa erosiko nuke. 652 73 50 10.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta**. Bedarreta auzoan panazko txamarra bat galdu dut. Aurkituz gero: 943 79 39 96.

**Urkulu**. Ikusteko betaurrekoak galdu ziren ustez Urkulun Aste Santu aurretik. Kaxa beltza, barruan boli bat ere bazegoen. 943 79 75 37.

### 807. AURKITU

**Bergara**. Monopatina aurkitu dugu. 943 76 55 10.

# 10/ RELAX

CLUB IYOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

delfín
promociones y marketing

Enpresei sustapen komertzialetarako artikuluen salmentan espezializatutako Gasteizko enpresa garrantzitsuak ondorengoa behar du Debagoienerako

**SALTZAILEA**

**Hau eskaintzen dugu:**
- Plantillan sartzea -
- Diru-sarrera interesgarriak: soldata + komisioak -

**Hau eskatzen dugu:**
- Benetako bokazio komertziala -
- 30 urtetik beherakoa izatea -
- Inguruan bizitzea -

**Hau hartuko dugu kontuan:**
- Inguruko enpresa industrial eta komertzialak ezagutzea eta eurekin loturak edukitzea -

Interesa edukiz gero, bidali zure datuak eta curriculuma ondorengo helbidera:
**DELFIN REGALOS DE EMPRESA, S.L.**, Hedegile kalea, 67 eta 75 - 01001 GASTEIZ

JATETXEA
Elgetan, martxan dagoen Iñaki jatetxea eskualdatzen da.
943 76 82 83

BERGARA
Txarrantxa jatetxean TABERNARIA behar da.
943 76 15 84
(Deitu 20.00-22:00)

BERGARA
ESPERIENTZIADUN MARGOLARIAK BEHAR DIRA BERGARAN
943 76 97 31

ARRASATE
Argazki denda baten lan egiteko pertsona bat behar da.
Bidali curriculuma
17. Postakutxatilara
20500 ARRASATE

ARETXABALETA
TABERNA BATEN ZERBITZARI GAZTEA BEHAR DA ASTEBUKAERATAN LAN EGITEKO.
656 72 14 82

**IRAGARKIA**

Udal Plenoak, 2002ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuen:

1.- Hasiera batean onartutako "Arrasateko Udalerriko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorraren" aldaketa proposamen orokorra onartzea.

2.- "Arrasateko Udalerriko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorrari" egindako alegazioak erantzutea.

3.- "HASIERAN ONARTUTAKO TESTUARI EGINGO ZAIZKION FUNTSEZKO ALDAKETAK JASOTZEN DITUEN AGIRIA" -IV Eranskina- jendaurrean jartzea HILABETEKO EPEZ, aztertua izan dadin eta alegazioak aurkez daitezen.

Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da, herrialdeko hedabiderik haundienetako egunkari batean argitaratu eta Udaletxeko Ediktuen taulan ezarri.

ALKATEA,
Arrasaten, 2002ko martxoaren 26an

ARRASATEKO UDALA

**Hirigintza Saila**

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**100 orduko ikastaro teknikoa (25 orduko 4 modulu)**

**Zapatuetan emango da ARRASATEN**

• Izen ematea: 679 69 33 18
943 71 54 53
e-mail: *ebae_sostenible@yahoo.es*
• Izen emate egunak: Apirilak 15 eta 16

Iturria: *"DIARIO DEL MOTOR"* aldizkaria

DIARIO DEL MOTOR
NOTICIAS • MERCADO • INDUSTRIA • ENTREVIS




**FORD FOCUS,**
**FIDAGARRITASUNEAN AURRENA**

